

uk

221. zenbakia / 2012ko urriaren 23a



URTERO 20€

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urtero argazki zahar eta barriak
Urtero zure proiektuak lau haizetara
Urtero 20 euro

uk  **Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.**

www.ukaldizkaria.biz **neuk ere gura dot** **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**



Dacia Lodgy berria

Monobolumen handi bat

9.700€-tik aurrera¹

Aukeran 5 edo 7 plazakoa
 GPS nabigatzailea inkorporatuta
 Maletategiaren edukiera: 2.600 dm³

Dacia España **Dacia ESP** **3URTEKO BERMEA EDO 100.000 km**

www.dacia.es / 902 245 200 | **Zure Renault Dacia kontzesioan aurkitu ezazu.**

1.) Adierazitako PSP penintsulan eta Balearretan da baliagarria 12/10/31ra arte. Lodgy Base 1.6 60 kW (85 ZP) modelo erosteko, zergak barne. RCI Banqueko Espainiako sukurtsalarekin lotutako finantzatze deskontua sartzen da. Ekipamenduak bertsioaren araberakoak dira. Argazkiko modelo: Lodgy Laureate TCE 85 kW, 16"-ko hagunekin; gomendatutako PSP: 14.632 €. **2.)** Lehen bi urteetarako bermea kilometraje-mugarik gabea da. Bigarren urteik aurrera, bi baldintzetako bat gauzatzen denean amaituko da bermea.

Dacia Lodgy: kontsumo mistoa (l/100 km) 4,2tik 7,1era arte. CO2 emisioa (gr/km) 109tik 165era bitartekoa. Dacia recomienda **elf**

BILBO BERRI Jon Arrospeide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu - Bilbo
LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagarmínaga
ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gujarrubia, Irantzu Sagarmínaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Fredi Paia, Armando Llamosas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Txorien eraztunketa Bolueko Hezegunear.
6. FACEGUK. Zer deritzozu Halloween ospatzeari?
7. LEHEN ETA ORAIN. Lamiako.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Iñaki Legarreta.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Txixiburruntzi Eguna Leioan.
28. ARGAZKIA. Anton Saratxo; Gorliz, 1912.
30. BERBETAN. Koldo Zabala.
34. FOTOGRAFIA. Eduardo Camino.
40. SAKONEAN. Hizkuntza erabileraren VI. kale-neurketa Uribe Kostan.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Genero-ikuspegiko zinema Sopelan.
43. MUSIKA. Zuzen-Zuzenean zirkuitua.
44. LIBURUAK. Literatura Eskola marxan.
45. KIROLAK. Inhar Ugarte.
46. ELKARRIZKETA. Letizia Ferreiro.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Peperone muffina.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Areetako "ondarrak" Gorbean, 1968.
54. AITORMENAK. Inazio Perurena.

Azala: Eduardo Camino

www.ukaldizkaria.biz



30 Koldo Zabala

Berbetan

Txikitatik Iparraldean bizi den Koldo Zabala (Getxo, 1935) dantzariagaz luze jardun dugu berbetan.



11 Iñaki Legarreta



54 Inazio Perurena

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

K.Olate

Qatar, gurean

Qatarren hasiak dira dagoeneko 2022ko udan jokatu den munduko futbol-txapelketarako azpiegiturak prestatzen, haien artean hamabi estadio zein baino zein ikusgarriagoak. Egitasmo distiratsuok badute, alta, ifrentzu ilunik, Human Rights Watch-ek eta Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioak ohartarazi dutenez: azpiegituraren eraikuntzan ari diren Nepal, India eta ekialdeko beste hainbat lurraldetatik iritsitako milioi inguru beharginen lan eta bizi-baldintza miseriazkoak.

Aldeak alde, gurean ere ari gara futbol-estadio dotore askoa egiten, San Mames Barria, Bizkaiko ahalduen nagusiaren berbetan “hiri zein herrialde honetako marabila” izango dena. Eta gurean ere mirespenerako baino lotsarako motibo gehiago eman du hainbat beharginen lan-baldintzek: asteen 60-70 orduko lanaldia, legez dagokien soldataren erdiaren truke; langile etorkinak dira nagusiki, baina gero eta behargin autoktono gehiago ere legez azpiko baldintzetara makurrarazi omen du lan eskasiak.

Qatarreko gehiegikerien azken ardura emirra buru duen erregimen autokratikoarena da. San Mames Barriakoena, berriz, gure erakunde demokratiko gertuenekoena: Aldundia, Bilboko Udala eta Jaurilaritza, hauek osatzen baitute, Bank bihurtutako Kutxarekin eta bizkaitarren instituzio kuttunena den Athleticekin batera, estadioa eraikitzen ari den partzuergoa; aipatutakoei dagokie, hortaz, –haien eta gure lotsarako diot– San Mames Barriako lanen azken ardura, azpikontrata katearen beste muturrean gertatzen diren gehiegikeriak barne.

Legez kontrako baldintzetan ari diren langileen egoeraz sindikatu batek eginiko salaketa ez dute jaso nahi izan Athleticen inguruko kontu txikieneri soka luzea atera ohi dioten bi egunkari bizkaitarrek. Bistan da garaile eta galtzaileen gizarte arraio honetan, goikoen idazlariek izkiriartzen dituzten



kroniketan ez dagoela azpikoentzako lekurik, ikusezinak direla: “*Nork jaso zuen Tebas, Zazpi Portaleko hiria? –galdetzen zuen Brechtek– Liburuetan erregeen izenak datoz. Erregeek garraiatu al zituzten, menturaz, harrizko bloketzarrak?*”

Lanak amaitu edota kontratuak eten ahala, lekutzen joango dira behargin ikusezinok San Mames Barriatik, beste lanen bat non aurkituko. Denak alde egin ondoren

bertaratuko dira agintari eta handi-mandiak eraikin txundigarria inauguratzera eta beren izenak hilezkortuko dituen plaka distiratsuari estalkia kentzera, bularra hanpatuta, instalaziook euren eskuz eginak bailiran.

Balia dezadan Plaza-n eskaini didaten txokoa proiektu arranditsuak posible egiten dituzten behargin ikusezinen ekarpena aldarrikatzeko eta beraientzat, plakarik ez, baina bai dagozkien eskubideen errespetua eskatzeko. ○

gu geu

Aurkezpen bat eta ohar bat

Alde batetik, Gorrizko leku magiko baten izena daroan atal barria aurkeztu gura dizuegu: *Jentilbaso*. Bertan orain dela urte batzuk Armintzan bizi den Aritz Bergara sestaoarrak Euskal Herriko Mitologiaren barri emongo digu aurrerantzen. Bestalde, gogoratu gura dizuegu urteko harpidetza ordaintzen ez dutenek ez dutela aurrerantzean UK etxeko postontzian jasoko. Aldizkari honen egitasmoa indartzen, lantzen, garatzen, zaharberitzen, sendotzen joatea gura dugu, hori da gure desioa eta eginbeharra; baina gure egoera ekonomikoa ez da ona, eta bizi ditugun garaiok ez dira itxaropentsu sentitzeakoak, gainera etxeko atean urtean 20 aldizkari jasotzeagatik urtean 20 euro ordaintzea ez dela larregi eskatzea uste dugu...

UK-ko lan-taldea



BOLLUE, 2012KO URRIAREN 6A

Hegoak ebaki banizkio... / “...nirea izango zen”; baina Getxon gurago dute hegorik ez ebaki eta txoriak libre utzi. Urriaren 6an, Hegaztien Munduko Egunaren harira, hegaztien eraztunketa zientifikoaren erakustaldia egin zuen Txepetxa taldeak Bolueko Hezegunearan. Asmoa izan zen ahalik eta jende gehienarengana hurbiltzea hegaztien mundua, ingurumena zaintzeko garrantziaz kontzientziatzeko: zelan bizi diren, zein mehatxu eta arrisku dituzten, e.a. Gobelaren ibarrean dago Hezegunea, ibaiak eta Larrañazubi errekek bat egiten duten lekuan. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zer deritzozu Halloween ospatzeari?



Algorta

Elena Arredondo

> bulegaria

Jai amerikarra da, eta ez zait ondo iruditzen, ez zait gustatzen hemen jai hori ospatzea. Nire ustez Halloween hemen ospatzea moda bat baino ez da, jende askok jarraitzen duen moda. Benetan, ez zait gustatzen hemen ospatzea, egia esan, ez nago ados hemen horrelako gauzak egitearekin.



Algorta

Edurne Perez

> langabea

Une honetan jendeak krisi handia bizi du, eta parranda behar du, eta Halloween jaia beste aukera bat baino ez da. Niri ondo iruditzen zait horrelako jaiak egitea; jendeak ondo pasatzen badu, eta errealitateaz pixka bat ahazten bada.



Algorta

Olatz Diez

> administraria

Nire ustez tontakeria galanta da Halloween jaia hemen ospatzea; halere, uste dut hemen gutxi ospatzen dela, baina zinez uste dut ez daukala zentzurik horrelako jaia hemen ospatzea, ez litzateke gurean horrelakorik ospatu beharko.



Algorta

Gema Azkorra

> erizaina

Nik uste dut hemen horrelako jairik ez dagoela, uste dut hemen ez dela era honetako festarik ospatzen. Bestalde, esan behar dut, nik neuk ez ditudala gogoko horrelako ohiturak zein jaiak ospatzea; zintzoa izan behar badut ez zait batere gustatzen.



Algorta

Xabier Sistiaga

> irakaslea

Nire ustez Halloween aitzakia bat besterik ez da parranda egiteko. Gaur egun, edozein gauzak balio du parranda egiteko, eta ondo pasatzeko. Hortaz, nik uste dut jendeak parranda egiteko bakarrik ospatzen duela Halloween, ez du beste ezertan pentsatzen.



Algorta

Patricia Fernandez

> liburuzaina

Nire ustez yankilada hutsa da honakoa; zinez uste dut hemen ez dagoela heriotza horrela ospatzeko ohiturarik. Gaztea nintzenean, baina, esan behar dut ospatzen nuela, parranda egin, eta ondo pasatzeko. Gaur egun, aldiz, ez ditut horrelako jaiak ospatzen, ez zaizkit batere gustatzen.



GETXOKO UDAL LEIBURUTEGIA, UTZIRAKO ARGAZKIA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / LAMIAKO

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Arriluzek ikusitakoak



Arriluze, 2011ko ekainean

Testua: **Nahikari Ayo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Espainian behera

Kolesterola kentzen hainbat ibiltari, beste batzuk korrika: "mitxelin joan hadi!" Gure itxura zaintzea badaukagu argi.

Horrela ibiltzen dira getxoztar ugari...

Jainkoak ez dauz lortzen nahi beste mirari!

Arriluzek ikusten dauz hainbat kruzero, turismoak dakartza nahi beste bezero. Bilbo eta Guggenheim bisitatuz gero,

Getxo_ ez dute zapaltzen

hauek egunero...

Bertan dirua_uztea etzazue_ espero...

Batzuk gasolinoan, besteak piraguan. Asko txibiak hartzen toki sekretuan. Ez dugu aintzat hartzen zer dugun onduan.

Holango parajerik

ez dago munduan!

Arriluzek gozatu nahi duzun moduan!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Bisita txartelak

QR KODEAREKIN

Urte askotarako

QR KODEA dohainik sortzen dizugu



100 txartel zuri-beltzean **8,50€** BEZ barne

100 txartel koloretan **14,50€** BEZ barne

QR ZERBITZUA AUKERATU:



URL helbidea



VCard



SMS



Telefono zbk.



Testua

www.cianoplan.es

justuri > uhin-baimena



101.1 frekuentzia eskuratzeko bidean da Justuri


Igortzeko lizentzia, behin-behinean, emon dio Eusko Jaurlaritzak Berbako elkarteari, berori da Justuri irrati euskaldunaren bultzatzaile. Lizentzia behin-betiko izan dadin, bete beharreko paperak aurkeztu beharko dituzte egunotan. Lizentzia eskuratzean, Uribe Kostan, Txorierrin, Mungialdean, Bilbon, Hego Uriben eta Ezkerraldean entzungo da. Justuri irratioko egitasmoaren sustatzaileak hauek

dira: eskualdeko euskara elkarte guztiak (Aitxul, Berbalamiñe, Berbots eta Bizarra Lepoan); Jose Antonio Agirre eta AEK euskaltegiak; komunikabide euskaldun danak (Koska kolektiboa, *Ukberri.net* eta UK aldizkaria); Leioako Betiko ikastola, Algortako Bertsolari Eskola, Plaza Beltza kulturgunea, Aztibegia kultur elkarte eta eskualdeko hamaika irratiak batzen dituen Talaieta elkarte. o

aurkezpena > Durangoko azoka

Nestor Basterretxeak egin du 2012ko Durangoko Liburu eta Disko Azoka iragartzen duen kartela. Kartelaren aurkezpenagaz hasi da Gerediaga elkarteak antolatzen duen eta urtero-urtero milaka euskaltzale eta kulturzale erakartzen dituen Azokarako atzera kontaketa. Aiert Goenaga Azokako zuzendariak azaldu duenez, orain arte kartela lehiaketa bidez aukeratzaren zuten, ostera, aurton artista berme-

otarrari luzatu diote egiteko eskaria. Berak azaldu legez, *"telebista pantaila matxuratzaren denean agertzen den kolore aberastasun ikaragarria da karteleko irudiaren oinarria"*, azken aldiaren irudi horietan oinarrituz egiten ditu collage lanak, eta *"kartel moderno bat teknika berri batez egiteko"* aukera baliatu du. Bestalde, krisiak Azokan ere eragin du, iaz baino egun bat gixiango iraungo du: abenduaren 6tik 9ra. o



Abenduaren 6tik 9ra egingo da Azoka



Sopelako kanporaketan jardungo du "Katxo"-k

bertsolari-txapelketa > Sopelako kanporaketa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketa bat Sopelan izango da hilaren 28an, domekan. Bertan parte hartuko dute Algortako Ekaitz Larrazabal *"Katxo"*, Igor Elortza, Garikoitz Sarriugarte, Gorka Lazkano, Joseba Artza eta Nerea Ibarzabal bertsolariak. Zita arrastiko 17:30ean izango da Sopelako frontoian. Sopelakoa Txapelketako laugarren kanporaketa izango da, baina, bezperan, hilak 27, hiruga-

rrena egingo dute Mungian, Olalde Aretoan, 17:30ean, eta bertan ere bada gure eskualdeko bertsolarien ordezkariak. Mungiakoan lehiatuko direnak hurrengoak dira: Fredi Paia, Peru Vidal, Ander Elortegi, Iñaki Iturriotz, Malen Amenaabar, eta Txaber Ormazabal. Uribe Kostako bertsozale hori hurrera zaitetz hitzorduotara eskualdeko bertsolariak animatzen, eta azken horiei: zorte on!!! o

HOTELA
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Aurrerantzean, harpidetza ordaintzen ez dutenek, ez dute UK etxeko postontzian jasoko.

UK-k ezin ditu kostu horiek bere egin.
Oharra: Halere, gune publikoetan (adib.: kultur etxeak) zein kioskoetan eskura dezakezue UK

Harpidetu eta jaso UK
zure etxean, hamabostero.
Urtero 20 euro.



neuk ere gura dot



www.ukaldizkaria.biz

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

[erretratua]



“Seguruenik lurperatzaileen bilera antolatuko bagenu liburu mardul bat betetzeko izango genuke”

Iñaki Legarreta Ostolozaga > Leioako lurperatzailea

Hotzikara sentitzen du jende askok kanposantu batera sartzean: hilobiak, mausoleoak, gurutzak... Gehienak leku tristeak dira. Ilunak, grisak. Ez da bisita atsegina izaten. Baina, ia egunero hilerriera joaten denik ere badago. Iñaki Legarreta romotarrak, berbarako, Leioako kanposantuan egiten du lan, lurperatzaile: “Orain 16 urte hasi nintzen hemen lanean”. Ez da bere bokazioa, baina ez zuen aurreiritzirik hilerrian behar egiteko: “Aurretik ez nuen beldurrik edo arazo askorik hilerriera etortzeko”. Ez da ohiko lanpostua, eta jendeak sorpresa hartzen du Legarretaren beharra zein den dakienean: “Dena den, hilerrietako giroa aldatu da. Antzina hemen lan egiten zuenak irudi tetrikoa zuen”. Egun, ostera, kanposantuek parke itxura dute, bai estetika aldetik bai zentzu aldetik: “Tragikotasun hori galduz doa, eta gainera gizartearen zati bat erlijiotik urrunduz denez, jendea praktikoagoa da”. Halan da be, kanposantuek oraindino misterio puntu horregaz jarraitzen dute. Romotarrak aitortu duenez, hainbat kontu bitxi gertatu zaizkio: “Baina errespetuagatik ezin ditut kontatu. Seguruenik, lurperatzaileen bilera antolatuko bagenu liburu mardul bat betetzeko izango genuke”. Azaroaren 1ean, Domu Santu Eguna, izango da hilerriaren ‘egun handia’: “Gero eta jende gutxiago etortzen da. Ikuspegi erlijiosoagatik baino, ikuspegi sozialagatik etortzen da jendea”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Herri txiroei laguntzeko dirua

Gobernuz Kanpoko Erakundeek garatzen dituzten **22 proiektu diruz lagunduko** ditu Getxoko Udalak; **guztira 382.000 euro** banatuko du **Amerikako, Afrikako eta Asiako** proiektuentzat

Urri hasieran esleitu zituen Getxoko Udalak Gobernuz Kanpoko Erakundeentzako diru-laguntzak. Horrela, lankidetzako, sentsibilizazio eta giza ekintzako 22 proiekturen artean banatuko ditu aurten 382.000 euro. Laguntza hauek, Udalaren asmoa da **“giza-garapena ahalbidetzea”**.

Udalak 382.000 euro banatuko du **“lankidetzako, sentsibilizazio eta giza ekintzako”** 22 proiekturen artean. Bere helburua da **“herri pobretan aurrera eman beharreko proiektuak kolaboratzea, baita sentsibilizazio eta giza-ekintzako ekimenak aurrera eramaten dituztenak”** ere, horien bitartez **“giza-garapena ahalbidetzeko”**. Horregatik, diruz-lagunduko ditu GKE edo Gobernuz Kanpoko Erakundeentzako hainbat egitasmo.

Horrela, San Martin de Tours elizako Misioen taldeak 45.000 euro jasoko du Kanseniako eskolaratze egitasmo baterako (Kongoko Errepublika Demokratikoan); Medicus Mundi Bizkaia elkarteak 29.900 euro lortuko du sexu osasuna sustatzeko Guatemalan eta Zabalketa elkarteak 29.800 euro Bolivian basoak kudeatzeko proiektu baterako.

Osalde, Perualde, Entre Amigos-Lagun Artean, Educacion sin Fronteras eta Mujeres con Voz taldeek 29.000 eurora jasoko dute, hurrenez hurren: Malin emakumeak trebatzeko proiektu baterako, Perun heziketari lotutako egitasmo baterako, Guatemalan azpiegiturak eta sanea-



Egitasmo gehienak Hego Amerikan eta Erdialdeko Amerikan garatzen ari dira

mendua hobetzeko, Salvadorren heziketa eremuko proiektu bat garatzeko eta Peruko bio-ortu baten egitasmorako.

Ayuda mas taldeak 24.000 euro jasoko du Ekuadorreko arrisku gunetan heziketa sustatzeko; Vicente Ferrer elkarteak

«Diruz-lagundutako egitasmoen %63 Amerikan garatuko dituzte, %31 Afrikan eta %6 Asian»

19.300 euro Indiako Anantapurereko 39 familia nekazariren egoera ekonomikoa hobetzen laguntzeko, eta Lur eta Itsaso elkarteak 14.000 euro Guinea Bissauko nekazal guneetako garapena bultzatu ahal izateko. Azkenik, ECCA Romo elkarteak 9.000 euro emongo dizkiote Telema Buru Osasun Zentroaren kudeaketako

(Kongoko Errepublika Demokratikoan).

Ikus daitekeenez, diruz-lagundutako egitasmo horien %63 Hego Amerikan eta Erdialdeko Amerikan garatuko dituzte, %31 Afrikan eta %6 Asian.

Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazio alorrari dagokionez, Medicus Mundi Bizkaia elkarteak beste 13.715 euro eskuratuko ditu, Unesco Etxeak 13.419 euro, Biladik 11.314 euro, Entre Amigos-Lagun Artean taldeak 10.750 euro eta Zabalketak 10.400 euro.

Gainera, giza-ekintza alorrean Chernobil elkarteak 2.800 izango ditu, Chernobilgo Umeak taldeak 2.000 euro, eta Bikarte eta Ukraina Gaztea elkarteak 800 eurora, udan adin gutxiak hartzeko programak aurrera eramanez ahal izateko. ○

Info+: www.getxo.net

Izar gazteen distira

Kastinak izango dira urriaren 30 eta 31n, Aldain



Info+: www.izarrendistira.com

Urriaren 26 arte izena emon daiteke aurtengo Izarren Distira lehiketan parte hartzeko. Kastinak urriaren 30 eta 31n egingo dituzte Algortako Aldai Patronatuak, eta gala azaroaren 11n izango da, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan.

Arte eszenikoen euskara hutsezko ikuskizuna da Izarren Distira, gazteen-tzat. Horrela, 1994 eta 2000 bitartean jaiotakoek parte har dezakete eta edozein motatatako saioa egin dezakete: musika, dantza, antzerkia, zirku-teknikak, monologoak, txisteak, bertsoak, etab.

Bi eta hamar minutu biarteko ikuskizunak aurkeztu behar dira, eta antolatzaileek ez dute onartuko edozein oinarritzko eskubide urratzen duen ikuskizunik. Bakarka zein taldeka parte hartu daiteke lehiaketa honetan, baina taldeek, gehie-

nez sei lagunetakoak izan behar dute.

Irabazleentzako saria Port Aventura bidaia izango da, sei pertsonarentzat. Beraz, irabazten duen taldea sei lagunek baino gutxiagok osatzen badute, taldekiek erabakiko dute zein lagunak bidaiatu, sariaren sei lekuak bete arte (gixtinez adin nagusiko pertsona bat joan beharko da ezinbestean).

Lehiaketa izena emoterakoan parte-hartzaileen datuak helarazi behar zaizkie antolatzaileei, getxo@izarrendistira.com helbidera edo Tuentiren bitartez mezua igorri, baita telefonoz ere, 663 083 736 zenbakira deituz: izen-abizenak, jaiotze-data, herria eta ikastetxea, eta telefono zenbakia ipini behar dira. Gogoia eta irudimena besterik ez dira behar parte-hartzeko: beraz, animatu eta osatu taldea! ○

ARGIHIZKIAK IKUSTEKO AUKERA, 31 ARTE

Oraindino aukera daukazu Argihizkiak erakusteta ikusteko, urriaren 31 arte. Algortako Torre Aretoan dago eta goiz eta arrastiz bisita daiteke. Getxoko 15 argazkilariren irudiei hitzak ipini dizkiete hainbat lagunek: batzuk dira mezu elektronikoak eta besteak SMSak. Egizuk, Euskara Zerbitzuak, Getxophotok eta UK aldizkariak antolatuta dugu ekimena.

ASTE KORALA IZANGO DA URRIAREN 29TIK 31RA

Egunak laburtzeagaz batera iritsiko da Aste Korala Getxora: urriaren 29tik 31ra izango da 32. edizioa, Algortako El Redentor elizan. Hilaren 29an kantatuko du Venezuelako Antiphona koruak, 30ean Ukrainako Credo koruak eta 31n Finlandiako Vocal Ensemble Res Mira abesbatzak. Saioak 19:30ean hasiko dira eta sartzera doakoa izango da.

GURASOENTZAKO IKASTAROAK PREST

Abiatu dituzte ikasturte honetako ikastaroak Udalak eta ikastetxeetako Gurasoen Elkarteak (GE) hiru Federazioek. Urtarrilera bitartean landuko dituzte tailerrak ondoko gaien buruz: sexualitatea, estresa nola bideratu eta emozioen kontrola, kideen arteko indarkeria, drogen prebentzioa, eskola-porrotaren prebentzioa, erabakiak hartzea eta arazoak konpontzea, eta adimen emozionalaren heziketa. Ikastetxeetan garatuko dira eta ez da emon behar izena aldezturik.

Info+: **944 660 151** eta www.getxo.net

TURISMO BULEGOA EREAGAN 2013-RAKO

Ereagako La Terraza eraikinean kokatuko da Getxoko Turismo Bulego barria: 2013rako Aste Santuan zabalduko dute. Eraikineko 642m²-tatik 322tan egingo dituzte lanak eta 550.000 euroko kostua izango dute. Gainera, hondartzako zerbitzuak egokituko dituzte eta egungo aparkalekua urbanizatuko dute (250m²).



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Elkarlana Santa Eugenia herriarentzat elkartea

“Lanak hasi bitartean bota dezatela murrua atzera eta utz dezatela plaza erabilgarri”



Irailaren 29an Romoko auzotarrek ekimena egin zuten Santa Eugenia plazan

Badago saltsa Romon Santa Eugenia plaza dela-eta. Orain ia urte bi bota zuten bertako kultur etxea eta eraikin barriaren lanak egiteko murru bat altxatu zuten, plazari zati bat kenduz. Baina oraindino ez dira abiatu lanok; areago, egitasmoa gelditu dago berraz barriro planteatu behar dutelako. Gauzak horrela, auzokideek ekimena egin zuten irailaren 29an: murruren zati bat bota zuten, plazaren erabilera berreskuratzeko asmoz. Udalak Polizia bidali eta eraspina gelditu zuen. Horren ostean, auzokideak batu eta elkarre hiru sortu barri dute.

—Zertarako sortu duzue elkartea?

—Helburu nagusi bi daukagu. Batetik, kultur etxe barriko lanak hasi bitartean plaza herritarren erabilerrako izatea. Hau da, lanak hasi bitartean, murrua atzera botatzea; lanak hasiz gero ondo dago murrua, baina ia urte bi daroagu murru horregaz eta ez dugu gura egoera hori gehiegi luzatzea. Argi dago lanak abiatzen direnean plazaren zati bat behar du dela langileek, kultur etxearen eraikinaren espazioa txikia delako; hori argi daukagu auzokideok. Baina, bitartean,

herritarren gozamenerako izan behar du plazak. Ia urte bi eta gero, Udalak dio datorren urtea baino lehen hasiko direla lanak, baina ez dugu sinesten: aztertzen ari dira zelan egin proiektua krisi honeguz, eta hori ez da berehala izango. Beraz, bitartean, mesedez, bota dezatela murrua atzera eta utz dezatela plaza herriarentzat, espazioa edonork erabili ahal izateko.

—Eta zuen bigarren helburua, zein da?

—Bestetik, kultur etxe barriaren proiektua hasten denean, uste dugu auzokideok eta bertako elkarreok horri buruz zer esa-

na eduki behar dugula. Udalak dio elkarreok harremanetan egon dela proiektua egiteko, baina dauzkagun datuen arabera, Romoren kasuan ez da izan horrela: egin duena izan da informazioa transmititu, baina ez da batu elkarreok proiektua azaltzeko eta galdetzeko zer iruditzen zaien, edota ekarpenik eskatzeko.

«Kultur etxeko edukiei buruz, auzotarrok ere erabaki behar dugu»

—Zer eragin dauka auzoaren bizitzan plaza osoa ezin erabiltzeak?

—Nabarmenenak dira Blues jaialdia eta Romoko jaiak: lehena Algortara eroan dute eta bigarrena Santa Eugenia kaleko aparkalekura. Jende asko ekartzen duten ekitaldiak dira eta galdu dute, bai Udalaren ekitaldiek, bai herritarrenek, bai danok. Hainbat ekimen egiten da, baina gauza txikiak dira. Ondorioz, kalte handiena ostalaritzak jasan du, kristoren giroa egoten zelako egun horietan; eta umeek ere, leku txikiagoa daukatelako jolasteko. Esan behar da plaza okupatzen duten bigarren aldia dela, orain urte batzuk aparkalekua egiteko itxita egon baitzen hainbat urtez.

—Orduan auzotarrek ez ziren haserretu horrela; orain, zergatik bai?

—Aparkalekua beharrezkoa geneukan Romon arazo larria dagoelako aparkatzeko. Baina aparkalekua hutsa da; kultur etxea, aldiz, edukiz bete behar da. Kultur etxea beharrezkoa da eta hori da toki aproposa, baina kanpo-egiturak berdin digu. Gura dugu jakin barruan zer egiteko espazioa egongo den eta zer antolatu den; ez dute gugaz partekatu eta uste dugu horri buruz guk ere erabaki behar dugula. Izan ere, erabiltzaileen beharretara egokitu behar zaio proiektua. ○

Indabada urriaren 27an

500 lagunentzako tokia egongo da Algortako Indabadan, **Biotz Alai plazan**



Txartelak salgai daude ohiko lekuetan, 7 euroren truke

Ipini itzea sutan eta hasi berotzen, 500 lagunentzako indabak prestatu behar dira-eta. Urtero legez, urriko akabuko zapatuagaz batera dator Indabada Algortara: hilaren 27an izango da.

Ekimenak goizeko 10:00etan hasiko dira, baina antolatzaileek ordubete arinago ipini dute hitzordua Biotz Alai plazan, gauza danak prestatzen hasteko. beraz, dei egin dute lagun oro muntaketan laguntzera, askoren artean askoz azkarrago egin ohi dira-eta lanak.

Aipatu legez, 10:00etan hasiko da Indabadaren egitaraua, Dianagaz. Herriko kaleetan barna ibiliko dira gazteak,

herritarrek esnatuz eta festara deituz. Apur bat beranduago, 11:00etan, txotx izingo dute, trikitixen doinuek alaituta.

Solas eta barre artean joango da goiza, herri-bazkarian elkartu arte. Txartelak salgai daude ohiko lekuetan eta adi ibili, beti amaitzen dira-eta; aurten lerde-zapiak oparitutako dituzte txartelakaz batera. Bestela, arrastian gerturatzea ere bada- go, bazkalostean ez dira-eta faltako jolasak, zozketak eta kantak. Horien ostean, gainera, poteoa hasiko da tabernetatik, txaranga batek girotuta. Eta non amaituko da festa? Kamioia aterako dute Gazte- txera bidean? Hurbildu eta ikusi! ○

IBILBIDE TOPONIMIKOAK ABIATU DITUZTE

Udalerriko ondare etnografikoa eta toponimia ezagutzeko ibilbideak abiatu ditu Bizarra Lepoan elkarreok osterara ere. Lau ibilbide dira, batzuk bizikletaz eta besteak oinez. Daborduko zehaztu dituzte hainbat egun: urriaren 27an eta azaroaren 10ean, Hezegueetatik eta Getxo berritik ibiliko dira, hurrenez hurren. Lehenengo egunean Fadurako Kiroldegitik abiatuko dira eta bigarrenean Neguriko Karmengo parrokiatik. Ibilbideak euskaraz izango dira baina, ohi bezala, eta hiru ordu iraungo dute, erritmo lasaian. Parte hartzeko deitu 688 635 zenbakira edo bidali mezua getxo.toponimia@gmail.com helbidera.

Info+: www.bizarralepoan.org

ITXARTU DANTZA TALDEA ARGENTINAN DA

Algortako Itxartu Euskal Dantzari Taldeko 26 kide Argentinan daude hainbat emanaldi eskaintzeko. Rosario hirian ospatuko den *Semana nacional vasca* delakoan Euskadiren ordezkari gisa arituko dira, aurten 100 urte betetzen dituen Zazpirak Bat euskal etxeak gonbidatuta. Zehazki, El Circulo antzokian egingo dute dantzan urriaren 26an. Gainera, Concordia hiriko Euskal Etxean ere dantzatzeko dute algortarrek. Bidaia jarrai dezakezu www.itxartu.com gunean.

ERROMERI DANTZEN IKASTAROA GETXON

Badakizu dantzatzeko fandango eta arin-arin? Ez? Bada, orain duzu ikasteko aukera. Izan ere, erromeri dantzen ikastaroa emongo du Getxoko Itxas Argia Dantza Taldeak hemendik eta datorren urteko apirilera bitartean, zapaturo. Ikastaroan parte hartu gura baduzu, zapatuan bertaratu beharko duzu, 12:00etatik aurrera. Itxas Argiaren lokalean izango da ikastaroa (Orduña Mendatea, 17). Zalantzarik izanez gero deitu 605 721 637 zenbakira, edota lokalera hurbildu, eta argituko dizkizute.

Info+: 605 721 637

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Carmen Palomero Contreras > artista eta harremani buruzko erakusketaren egilea

Maitasunaren alde onak eta ez horren onak erakutsiko ditu Carmen Palomero Kultur Leioan

Harremanak, genero-indarkeria izenburua daukan erakusketa ikus ahal da Kultur Leioan azaroaren 8tik abenduaren 9ra. Carmen Palomero Contreras Leioako bizilagunaren lana da.

Artearen eta bizitzaren arteko tarte horretan lan egiten du Carmen Palomero Contrerases, berak dioenez, "elkarren osagarri dira-eta". Sorkuntza horren isla ikus ahal da Kultur Leioan azaroaren 8tik abenduaren 9ra; izan ere, bertan muntatuko du ondoko erakusketa: *Harremanak, genero-indarkeria*.

Maitasuna eta heriotza da gaia, genero-indarkeriagaz lotuta. Damocles-en ezpataren kontzeptuari heltzen dio Palomero, "emakume askok jasaten duen egoeragaz lotuta: maitasun ohantzean lo egiten dute Damocles-en ezpataren mehatxua alboan". Baina, era berean, maitasuna gorai patzen du: amets egiten eta bizitzaren jarraitzeko irtenbidea.

Instalazioak hainbat atal izango du. Hasieran ikusiko da emaztegai-mantisa etzaleku baterantza doala eta, bere isatsaren gainean, 12 erraboila gorri. Horien erdiak malko beltz bihurtuko dira, mantisaren bularretik zintzilik. Etzalekuan hiru kuxin daude, larrosen petaloak eta



Info+: www.carmenpalomero.com

arantzak grabatuta dituztenak. Etzalekua ispilu baten aurrean kokatzen da eta hark insalazio osoa isladatzen du. Gainera, emaztegaiaren atzean dago *maitaleen basoa*, keramikazko ehun piezaz osatuta. Atal hori ere isladatzen da ispiluan, argia ekkariz egoera ilunari.

Beste atal bat da *ipurtargien esparrua*. Gurdi baten gurpilaren gainean kokatuko dira hainbat pieza txiki barrutik argiztatuta, ipurtargiak bailiran, animalari

horiek argia pizten dute-eta beste sexua erakartzeko. Atal bietan erabili ditu Palomero naturaren elementuak, lan denetan egin ohi duen legez.

Dana ez da iluna edo negatiboa erakusketan, argia ere sumatzen da erakusketan, itxaropenari atea zabalduz. Beraz, ikusten denez, kontraesanak jolas egiten du Palomero. Horra hor artistaren proposamena, ondoren ikusle bakoitzak atera beza bere ondorioa. ◻

Perseo Zineforuma

Urri eta azarorako zikloak: bizitzeko moduak eta **beste herri batean** bizitzen



Martitzenero izaten da Zineforuma, 20:00etan, Kultur Leioan

Aspaldi liluratu ziren zinemaren magiagaz Perseo elkarteko lagunak. Zaletasun hori leioztar guztiakaz partekatzeko, gainera, Zineforuma egiten ere hasi ziren duela urte mordo. Pelikulak hobeto ulertzeko eta gozatzeko modu bikaina bihurtu egin da filma eta solasaldiaren formatua.

Udan atsedean hartu eta geldialdia egin ostean, indarbarrituta itzuli dira urri honetan eta, daborduko, plazaratu dute hurrengo asteotarako eskaintza, bai urrikoa, bai azarokoa. Baina goazen apurka.

Ohi legez, hil bakoitzean gai jakin bat landuko dute Zineforumean, gai hori bera jorratzen duten filmak proiektatuz. Urrirako proposatu duten gaia da hu-

rrengoa: *Bizitzeko moduak: zoritxarrari aurre egiteko modu ezberdinak*. Daborduko proiektatu dituzte hiru pelikula, baina beste bi ere emongo dituzte: urriaren 23an *Arrugas* eta 30ean *Lola*.

Azaroan, barriz, *Beste herri batean bizitzen* zikloa izango da eta, haren barruan emongo dituzte: hilaren 6an *Welcome*, 13an *La extraña*, 20an *America* eta 27an *Amador*.

Zineforuma martitzenero egiten dute Kultur Leioako Auditoriumen, arrastiko 20:00etan. Gainera, prezio berezia izaten du sarrerak, ohikoak baino merkeagoa: 2 euro. Sarrerak erosteko Kultur Leioara jo behar da (Jose Ramon Aketxe plazan). ◻

Info+: www.kulturleioa.net

POP-ROCK-ERAKO KARTEL LEHIAKETA

Oraindino garaiz zabilta XIII. Pop-Rock lehiaketa iragarriko duen kartel-lehiaketan parte hartzeko: urriaren 30 arte aurkez daitezke lanak Aterpe Gaztegunean (Aldapabarrena, 2). Lehiaketa honetan parte har dezakete 14 eta 35 urte bitarteko gazteek. Saria 600 eurokoa izango da.

Info+: www.leioa.net

ELIZONDORA URTEERA AZAROAN, UMEENTZAT

Txilinbuelata programak urteko laugarren irtenaldia prestatu du: azaroaren 9tik 11ra joango dira Kortarixar aterpetxera (Elizondo). 2000 eta 2005 bitartean jaiotako umeek parte har dezakete eta 50 toki zozketatuko dituzte. Izena emon daiteke Euskara Zerbitzuan (Kultur Leioako laugarren solairuan).

Izen-emoteak: 94 607 25 76

ARTISAUTZA AZOKA AZAROAREN 9TIK 11RA

Ikusmenaren eta gastronomiaren plazaren azoka egingo dute azaroaren 9tik 11ra, Bulebarren. Azoka horretan elkartzen dira artisauak, bai gastronomia lantzen dutenak, bai objektuak egiten dituztenak. Goiz eta arrastiz zabalduko dituzte postuak, herritarrek artisauro- produktuak dastatu, ikusi eta erosi ahal izateko.

LAGUNTZAK GARAPEN PROIEKTUENTZAT

Garapenerako proiektuak garatzeko diru-laguntzak banatuko ditu Udalak eta horiek eskatzeko aukera dago azaroaren 2ra arte. Udalaren helburua da "irabazi-asmorik bako erakunde bidez herrialde pobreak garatzea" eta, beraz, laguntza jasotzeko erakundeek hainbat baldintza bete behar dituzte, besteak beste, egoitza soziala Bizkaian izatea eta bazkideak Leioan.

Info+: www.leioa.net

 **naturlan**

Lorezaintza
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243


BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Gorka Matute > Dance GM aretoko dantza-elkarteko presidentea eta dantza-irakaslea

“Plazetako dantzaldietan ez da ikusten gazterik eta ohitura galtzen ari da: hori ekiditea da nire ideia”

Gaztetan hasi zen dantzan Gorka Matute, hasieran disko estiloan eta geroago aretoko dantzetan. Ia berehala hasi zen irakasten ere, helduei zein umeei. Astrabuduko bizilaguna da eta bertan emoten ditu eskolak, kultur etxean eta Sonora aretoan. Azarorako goizeko beste talde bat osatu gura du helduakaz.

—Zelan hasi zinen aretoko dantzan?
—Lagun bati esker, mutil gehienek legez, dantzatzen neskak ezagutzen genituen eta. Disko estiloa dantzatzen nuen eta lagun batek esan zidan aretoko dantzak ikasi behar zituela, eta laguntzeko. Gustatu zitzaidan eta eskola gehiago hartzen hasi nintzen. Lehiaketetarako zaletasuna piztu zitzaidanean Bartzelonara joaten hasi nintzen klaseak jasotzera. Azkenean ikastaroak hemen egiten hasi ginen, irakasleak ekarri, baita lehiaketak antolatzen ere urtean behin.
—Orain eskolak emoten dituzu, baita Astrabuduan ere?
—Hori da. Iaz hasi nintzen auzoan klaseak emoten eta aurten ere hasi gara, umeentzat eta helduentzat. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean emoten ditut barikuetan, 9 eta 15 urte bitartekoentzat. Erandioko Goikolanda eta Ignacio Alde-



Info+: www.dancegm.com

koa eskoletan ere emoten ditut klaseak, Heziketa Fisiko orduen barruan. Iaz ere horrela hasi nintzen eta martxorako osatu genuen arrastiko umeen taldea; izan ere, hasieratik eskolaz kanpoko jarduera bezala egin banu ikastaroa, mutilik ez zen apuntatuko, eta aretoko dantza kirol mistoa da. Aurten zortzi ume hasi dira urrian eta lehiaketetan ere parte hartzen hasi gara. Bestalde, helduentzako klaseak emoten ditut arrastietan: barikuetan kultur etxean eta aste barruan Sonora areto-

an; sevillanak eta Karibeko dantzak irakasten ere hasi naiz bertan. Gainera, goizetan aretoko dantzen taldea osatu gura dut helduakaz: martitzenetan izango da, 10:00etan, Sonoran.

—Helduakaz lotu ohi dira dantzok.
—Garrantzitsua da umetan hastea dantzan, eurak dira eta etorkizuna. Hemen beti egon da dantzatze ohitura, baina daborduko, plazetako dantzaldietan ez dira ikusten gazteak eta ohitura galtzen ari da. Nire ideia da hori ekiditea. ○

Eguenetan akustikoak

Kontzertu akustikoak hasi dira Lutxanan: eguenetan izango dira, 20:00etatik aurrera



Plataforma 1.67 taldeak joko du Lutxanan abenduan

Udazken akustikoa izango da Erandioko; izan ere, eguenetan kontzertu akustikoak egiten hasi dira Lutxanan, hilean birtan gitxienez eta auzoko Tirante Plataformaren ekimenez.

Ziklo honetan, aukera emon gura diete estilo desberdinak jorratzen dituzten bizkaitar musika taldeei, Tiranteko lagunek azaldu dutenez. Abendura arte luzatuko dira emanaldiak.

Daborduko igo dira taulara Ebony Rose, Tala Tumsy eta Me Jane taldeak, eta urriaren 25ean kantatuko du Egoitz Mayak. Azaroari dagokionez, 22an joko du The Spanish Peasant taldeak eta 29an

Van Poppel-ek. Abendurako lotuko dira beste kontzertu bi: 13an arituko da Nia Moore King eta The Bluebirds taldea, eta 20an Plataforma 1.67, argazkian ikus daitekeen taldea. Emanaldi danak hasiko dira iluntzeko 20:00etan eta sartzeko leu euro ordaindu beharko da. Tirante Plataformak ohi duen legez, San Jose eskolako antzerki-aretoan garatzen ari da ekimena. Informazio gehiago daukazu ondoko gunean: lutxanaenacustico.blogspot.com.es.

Amaitzeko, aipatzea Altzagako Kale-zulo Gaztetxean ere hileko azken eguenetan antolatzen dutela afari akustikoa. Ez dago ba, aukera gitxi! ○

ZINEMA URRI AKABUAN, ASTRABUDUAN

Pelikula bi ikusteko aukera egongo da Astrabuduan urri akabuan, josu Murueta Kultur Etxean. Hilaren 25ean *Ted* filma emongo dute 19:30ean. Egun bi beranduago, barriz, urriaren 27an, pelikula bi emongo dute: 17:00etan *Piratas* eta 20:00etan *Elefante blanco*. Sartzeko 2 euro ordaindu beharko da eta sarrerak eros daitezke kultur etxean bertan, baita Udaleko Kultur sailean ere.

AZAROAN EMAKUMEAK ESZENATOKIAN

VI. Antzerki Zirkuituaren barruan dago Emakumeak Eszenatokia eta azaroaren hasieran antzezpena izango da Astrabuduko kultur etxean: hilaren 3an, zapatuan, *Mas alla que aca* lana antzetzuko du Hamaika taldeak, 20:00etan: “*Herentzia bat dela-eta gertatutako liskarraren ondorioz emakume bat koman sartzan da. Hortik aurrera mundu bi nahastuko dira: ametsetan jasaten dituen irudikazioak eta inguruan daudenen bizipenak. Egoera horretan, bere bizitzako iraganeko eta gaurko pertsonaiak agertuko zaizkio, helburu bakar batez: non egon gura duen erabakitzea lagundu; han edo hemen*”. Zinemarako prezio bera daukate sarrerak, 2 euro, eta daborduko salgai ipini dituzte.

Info+: www.erandio.net

RADIO CLUB TAKOLOS ELKARTEAREN URTEERA

Urriaren 28an Igoroin ibaiaren haizpitartera (Arraia-Maeztu-Araba) txangoa egingo du Astrabuduko Radio Club Takolos elkarteak, argazkiak egitera. Goizeko 08:00etan urtego dira Astrabuduko Iturribengoa kaleko autobus geltokitik (anbulatorioaren alboan). Autoz egingo dute bidaia eta gastuak danen artean ordainduko dituzte. Bazkaltzeko itzuliko dira, 14:00etarako. Izena emoteko mezua bidali behar duzu rctdx@hotmail.com helbide elektronikora.

Info+: www.radioclublakolos.jimdo.com



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta erreite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzeta, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrualdeak lorategi bihurtzea



adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

uk@aldizkaria.biz

*(sinatuta eta gehienez 330 berba)

ALTXOR GEOLOGIKOAK EZAGUTZEKO TXANGOA

Sopelako eta eskualdeko altxor geologikoak ezagutu gura badituzu, ezin duzu galdu Aitxuk prestatu duen berbatxangoa! Hitzordua urriaren 28an izango da, eta Koldo Nuñez aditua izango dute hizlari. Ibilaldia Meñakozen hasi, eta La Galean amaituko da. Ibilbidea egiteko autobus bat jarriko dute eskura, eta Sopelatik goizeko 09:30 aldera urtengo da. Info+: aitxuzuba@gmail.com.

HIRU URTE BETE DITU PLAZA BELTZA GUNEA

Azaroaren 3an hiru urte beteko dira Plaza Beltza Kulturgunea atek zabaldu zituenetik. Hirugarren urteurrena ospatzeko, ETArek estrategia armatuaren historiaz liburuaren aurkezpena antolatu dute, Emilio Lopez Adan Beltza-ren eskutik. Hitzordua azaroaren 7an izango da, 19:30ean. Bestalde, azaroaren 10ean III. Mural Politikoen topaketa egingo dute, eta gauean, barriz, kontzertuak Sekeko Gaztetxean.

THE HOT WOK TALDEAREN JAZZ EMANALDIA

Nahasketa berezia egiten duen ikuskizuna izango dugu Kurtzio Kultur Etxean urriaren 26an: The Hot Wok. Gasteizko Jazz talde honek hainbat musika estilo jorratzen du: funk, jazz, elektronikoa e.a. Emanaldia 20:30ean hasiko da, eta sarrerak hiru euroren truke egongo dira salgai.

ARROPA BIRZIKLATZEKO TAILERRA, ITZARTUN

Urtero legez, ikastaro eskaintza oparoa prestatu du Itzartu emakumeen elkarteak. Aurtengo barritasun nagusia arropa birziklatzeko tailerra izango da: eguaztenetan 16:00etatik 19:00etara. Horretaz gain, ametsen hizkuntzari buruzko tailerra ere eskainiko dute. Info+: itzartu@hotmail.com.

Putxerak bor-bor!

Azaroaren 3an III. Putxera Eguna antolatu dute Pepetxinen omenez; **parte hartu!**



90 putxera baino gehiago aurkeztu dira aurreko urte bietan

Usain eta giro gustagarria izango dugu Sopelan azaroaren 3an. Izan ere, egun horretan III. Putxera Eguna antolatu dute Pepetxinen omenez, eta beste urte batez, udaletxe plaza eta inguruko kaleak bor-borka izango ditugu.

Helburu bikoitzagaz antolatzen dute Putxera Eguna. Alde batetik, Pepetxin zenari gorazarre egiteko, sopoloztarra txapelketa gastronomikoen zalea baitzen (putxera txapelketarik ospetsuena, Balmasedakoa, irabazi zuten). Bestetik, herria putxera handi bihurtu eta jaia lau haizetara zabaldu

gura dute.

Sopelan putxeren ohitura askorik ez dagoen arren, aurreko edizio biak guztiz arrakastatsua izan dira: lehen edizioan 91 putxera aurkeztu ziren, eta bigarrenean, barriz, 97. Aurten marka guztiak apurtzeko apustua egin dute. Izena emateko epea 9etatik 11ak arte izango da, putxerak 12:30etik 13:00 arte aurkeztu beharko dira eta sari banaketa 14:30ean izango da, udaletxe plazan.

Antolakuntzan lagundu gura baduzu, herriko tabernetan salgai dagoen zozketa eros dezakezu. ○

Juan Manuel Fernandez Cenbellin > Historialaria

“Gurutzearen Egunean prozesioa egiten zen Munarriraino, landak bedeinkatzeko”



Sopeloztarrek bisitak gidatu ditu San Pedro elizatik Munarriraino

Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, bisita gidatuak antolatu dituzte Sopelan, San Pedro elizak eta Munarrik ezkutuzten dituzten sekretuak ezagutzeko. Juan Manuel Fernandez Cenbellin sopeloztarra izan da bisita-gidaria.

—Aurtengo Jardunaldietan Erdi Aroko **ondarea izan da protagonista.**

—Bai, Erdi Aroko azken garaia izan dugu hizpide. Agerian utzi nahi dugu herri txikiaren ere ondare garrantzitsua dagoela, eta ondare hori beharrezkoa dela gure herrietako iragana ezagutzeko.

—Sopelaren kasuan, lehenik eta behin, San Pedro eliza aztertu duzue, ezta?

—Bai, San Pedro eliza XVI. mendearen hasieran berreraiki zuten. Bisitetan azaldu dugun legez, bertan aurretik eliza bat edo hainbat eliza egon ziren, bata bestearen ostean. Baina sasoi horretan, 1510. urte inguruan, Sopelako herritarrek aberastu eta euren herriaz harro zeudenez, eliza barritu zuten, luxu-ukituz gainera. Bisitetan barritutako atalak zeintzuk

izan ziren azaltzen dugu. Bere umiltasunaren barruan, San Pedro nahikotxo nabarmentzen da.

—Eta San Pedro elizatik Munarriraino ibilbidea egin duzue...

—Orain gutxira arte, Gurutzearen Egunean (oker ez banago maiatzaren 3 edo 4an ospatzen dena), herritarrek eta apaizak prozesioan Munarriraino igotzen ziren, eta bertatik landak eta soloak bedeinkatzen zituzten. Seguruenik ohi-tura hori kristautasuna baino lehen hasi

«XVI. mende hasieran sopeloztarrek aberastu eta eliza berrizatu zuten»

zen, baina kristautasunak bere egin zuen. Munarri mugari antzeko bat da, pinakulu gotiko bat hain zuzen ere, eta ez dakigu nondik atera den eta zelan heldu zen haraino. Harri horren inguruan hainbat erritu egin dituzte herritarrek. Baina egoera oso kaskarrean dago, eta horrek informazioa lortzea zailtzen du. ○

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

ZABALDU DUTE BURDIN HESIARI BURUZKO INTERPRETAZIO GUNEA

Azken hiletan atontze lanetan egon ostean, ateak zabaldu ditu Burdin Hesiari buruzko Interpretazio Guneak, Berangoeta kultur etxeke erakusketa gelan. Sancho de Beurko elkarteak izan da egitasmoaren bultzatzailea, Udalagaz batera, eta bertan, herritarrek gerra zibilari eta beren-beregi Burdin Hesiari buruzko informazioa izango dute eskuragai: mapak, uniformeak, egunkariak, armak, gutunak e.a.

PROMUSIC TALDEAREN INAUGURAZIO SAIOA, URRIAREN 26AN

Indartsu hasiko du Promusic taldeak ikasturte barria. Aurreko hiletan legez, hirugarren barikuetan musika klasikoari buruzko monografikoak antolatuko dituzte. Urriaren baina, laugarrean izango da, hauteskunde kanpaina dela-eta. Hilaren 26an, horrenbestez, 19:00etan Berangoeta kultur etxean musika klasikoak izango dute hizpide: Verdiren Requiem-a, Berlineko Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Orfeoia.

12 ETA 17 URTE ARTEKO GAZTEENTZAT, BELDUR GAUA GAZTELEKUAN

Urteko gaurik beldurgarriena pasako dute Gaztelekuan urriaren 26an: Beldur Gaur! Ohiko ordutegiaren gain, 12 eta 17 urte bitarteko gazteek gaur Gaztelekuan igarotzeko aukera izango dute, eta gau osoan zehar hainbat jarduerak beldurgarri izango dituzte: magia, gore e.a. Horretaz gain, azaroan PS3 txapelketa abiatuko dute, domeketan, eta azaroaren 10ean, zapatua, arropa birziklatzeko tailerra egingo dute.

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Oliver Magoa > Urriaren 28an, magia-ikuskitza Santa Anan

“Magia ez da oholztan gertatzen dena: guk gure buruan sortzen duguna da”



Berangoztarra Bizkaiko Ilusionismo Elkartearen presidentea da

Magia truku batez erantzun dio Oliver Magoak UK-ko lehen erantzunari. Ezin zen beste modu batean izan. Berangoztarrak emanaldia eskainiko du Berango Antzokian urriaren 28an, 18:00etan.

—Zelan hasi zinen hagaxka magiko, untxi eta kapela artean beharrez?

—Beti gustatu zait magiaren mundua. Baina ni aktore hasi nintzen, Arte Dramatikoa ikasi bainuen. Hau da, aktoretzat dut nire burua, magoa baino gehiago. Mago lanak egiten duen aktorea nire zela esango nuke.

—Urriaren 28an ikusi ahal izango dugu zure ikuskizuna: Oliver Magic Show!

—Bai, ikuskizunaren izena ‘Liburu magikoa’ da, eta 2053. urtean girotua dago, Berango Antzokian bertan. Ikuskizunaren ohiko hainbat truku agertuko dira: agerpenak, eraldaketak e.a. Gainera, karameluak fabrikatuko ditugu, urriaren 28an Santa Ana antzokian elurra egitea lortuko dugu e.a. Ikusleen parte-hartzea bilatzen dut nire ikuskizunetan, guztion artean ikasten dugu magia benetakoa dela.

—Magiak, beraz, ez du adinik...

—Magia umeentzat da, bi urtetik 99 urte bitarteko umeentzat, hain zuzen ere. Denok izan gara ume, eta denok gogoratzten dugu zelako ilusioa sentitzen genuen Olentzerok oparia ekartzen zigunean. Ordu eta erdiz ikusleek sententzio hori berreskuratzea nahi dut.

—Sekretua non dagoen galdetuko dizu askok...

—Sekretua magian dago, ilusio hori sentitzea da benetako sekretua. Magia ez da

«Urriaren 28an Santa Ana antzokian elurra egitea lortuko dugu»

eszenatokian gertatzen dena, baizik eta guk gure buruan sortzen duguna. Ilusioa sentitzen duenak ez du sekretua jakin nahi, gozaten jarraitu gura du.

—Eta zer iruditzen zaizu zure herriko eszenatokira igotzeko aukera izatea?

—Ohorea da niretzat Berango ikuskizuna egitea, Euskadi osoan egon ostean. ○

Info+: <http://www.magooliver.com>

Plentziako XVI. Aste Mikologikoa > perretxikotan

“Ezinbestekoa, zera da; jendeak beti jakitea zer jaten ari den”



Plentziako Elkarte Mikologikoa 32 urte daroa lanean

Hamasei urte daramatzate Plentzian aste mikologikoa ospatzen. Eta aurten, daborduko prest da astea; hortaz, perretxiko zaletuek hitzordua daukate Plentzian urriaren 29tik azaroaren 4ra arte. Eta gu perretxikoen munduan murgiltzeko asmoz Koldo Ugartetxe eta Iñaki Zabalegigaz, Plentziako Elkarte Mikologikoko kideakaz egon gara.

—Zein helburuz ospatzen duzue aste mikologikoa?

—Helburuetako bat jendea perretxikoen mundura hurbiltzea da. Horrez gainera, xede daukagu urtero gertatzen diren perretxiko intoxikazioak saihesteko informazioa zabaltzea; jendeak perretxikoak errespetatzea, eta beti jakitea zer jaten ari den garrantzikoena da. —Zerk bultzatzen du jendea perretxikotan joatera?

—Oro har, kontsumoak; mendira joan, eta doan har ditzakezu perretxiko gozo-

ak. Badira, perretxikoak hartu, eta saltzen dituztenak ere. Guk, barriz, perretxikoak aztertzea dugu helburu nagusia. —Zeintzuk dira adituek ematen dituzten gomendioak?

—Garrantzikoena zera da; jendeak

«Elkarteko kideok perretxikoak hartu, eta horiek aztertzen ditugu»

jakitea zer jaten ari den; zalantzarik izanez gero hoberena zakarrontzira botatzea da. Izan ere, badira perretxiko hilgarriak gure inguruan ere.

—Zer prestatu duzue aurten?

—29an hasi, eta astelehen eta asteartean zonaldeko sukaldari bik perretxikoak platerak sortuko dituzte. Larunbatean, mendi-irteerak daude, eta arratsaldean perretxiko-sailkapena. Igandean, osteran, haur perretxiko lehiaketa, eta pintxo dastaketa daude. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

PLENTZIAKO UDALAK DRAGATZE ETA PANTALANAK EGITEKO ESKATU DIO LAKUARI

Plentziako Udalak herriko portuan zenbait hobekuntza egin beharko lirakeela aldarrikatu du, horien artean, dragatzea, portua handitu edota portuko ibilbidea handitzeko pantanalak eraikitzea aipatu ditu. Bestalde, Udalak zein Proa elkarteak, besteak beste, uste dute portua handi daitekeela, eta atrakaleku askoz gehiago egin daitezkeela, 400 inguru. Halere, Eusko Jauriaritzak ez omen du, oraindik, dragatzeko ezta pantalanak handitzeko asmorik. Hori dela-eta, hobekuntza horiek egiteko beharra agerian utzi gura izan dute, horiek egiteko premia aldarrikatuz.

UMEEN IRAKURKETA SUSPERTZEKO TAILERRAK BARRIKAN

Urriaren akabutik azarora arte haurren irakurketa suspertzeko tailerrak antolatu ditu Barrikako Udalak. Daborduko, urrian horrelako lehen tailerra martxan jarri da; eta hurrengo asteotan jarraipena emango zaie: urriaren 25ean, azaroaren 8 eta 22an arrastiko 18:00etan txikiaren irakurzaletasuna pizteko hurrengo datak dira. Tailerraren artean, idazketa, ilustrazio, eta txotxongilo-tailerra, besteak beste izango dira. Tailer guztiak Barrikako liburutegian egingo dira.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Barrika

Barrikarrek HAPOn inguruan ekarpenak egiteko aukera dute **urriaren 31ra arte**



2025erako 2.000 biztanle biziko ei dira Barrikan

Barrikako HAPOk aurrera darrai; joan den urriaren 5ean hain zuzen, Udalak aurkezpen publikoa egin zien auzokideei, eta hilaren 31ra arte herritarrek aukera izango dute HAPo planteamenduaren jarraipenari ekarpenak egiteko. Daborduko, plan osoa Barrikako liburutegian dute ikusgai herritarrek, baita Barrika udalerriko web-orrialdean ere. Planaren jarraipenari dagokionez; Elxalde eta Goierri auzoak herrigune nagusi bilakatu gura ditu; hain zuzen, Elxalde bilakatu litzateke herrigune indartsu eta nagusia. Goierri, ostera, bigarren auzo nagusia izango zen. Planak aurreikusten du 407 etxebizitza eraikiko dituztela udalerrian; horietatik %35, 120 inguru, Babes Ofizialeko Etxebizitzak izango dira.

Horietaz gain, bestelako azpiegitura batzuk sortzea ere aurreikusten da, ikastetxea zein kiroldegia berbarako. Etxebizitza kopuruaren erabakia hartzeko

urteetako biztanleriaren igoera aurreikusi dute, baita aurrerantzean egongo den igoera ere. Izan ere, planaren arabera 2025 urterako 2000 biztanle biziko da Barrikan. Horrela, herrigunea eratu du den hainbat alderdi kontuan hartu dituzte planean, horien artean, ekipa-

«Planak 407 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du; horietatik, 120 inguru babes ofizialekoak»

menduak, eremu libreak, azpiegiturak, zerbitzu publikoak, ingurugiro irizpideak. Horrez gainera, planaren sortze-prozesuan Udala zenbait elkarte zein norbanakogaz harremanetan ipini da inkestak egiteko; Udalaren arabera Jubilatuen elkarte, Sustraiak zein Emakumeen Hitza taldeakaz, besteak beste, elkarrizketak egin dituzte. Azkenik, 2013rako proiektuak behin betiko onarpena izatea espero da. ○

Urr. 23 - Aza. 5

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Ananpurrekin konprometitua, argazki-erakusketa.** Urriaren 31 arte. Algortako Azokako aretoan.
► **ArgiHizkiak.** Urriaren 31 arte. Algortako Torrene aretoan.

LEIOA

► **Bosteko.** Azaroaren 4 arte. Kultur Leioan.

ANTZERKIA

BERANGO

► **Oliver Magoa.** Urriak 28, 18:00etan. Euro 1.

ERANDIO

► **Mas alla que aca.** Azaroak 3, 20:00etan. Astrabuduko Josu Muruetan kultur etxean. 2 euro.

LEIOA

► **Publikoari gorroto.** Azaroak 8, 20:30etan. Kultur Leioan. 10 euro.

MUSIKA

ERANDIO

► **Dantzaldia: Pergola orkestra.** Urriak 28, 17:30etan. Altzaga auzoko azoka zaharrean.

GETXO

► **Para lo que hay que vivir.** Urriak 27, 20:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 8/10 euro.
► **Aste korala.** Urriaren 29tik 31ra, 19:30etan. Algortako El Redentor elizan. Doan.

PLENTZIA

► **Kantagunea.** Urriak 26, 19:00etan, Kristo basilizan.

Info+: www.egizu.org eta www.berbots.org

► **Bisita-gidatua**
Berbatxangoa Koldo Nuñez-Betelugaz

“Euskara eta kultura, gozatzeko moduko altxorak” dira eta, horregatik, Berbatxangoa antolatu dute urriaren 28rako Erandio, Getxo eta Sopelako berbalagunek. Bisita-gidatua izango da, Koldo Nuñez-Betelugaz gidatuta. Bisitatuko dituzte Meñakoz, Atxabiribil eta Arriaterako labarrak, baita Galea muturra ere. Goizeko 09:00etan urtengo da autobusa Erandioko gasolinotik eta Algortako Kirikiñon eta Sopelako eliza aurrean hartuko dituzte gainontzeko partaideak. Partaide bakoitzak 3 euro ordaindu behar du eta izena emoteko harremanetan ipini behar da antolatzaileak: 674 829 618 (Sopela), berbots@gmail.com (Erandio) eta 616 885 165 (Getxo).

• **Non:** Sopelan eta Getxon • **Noiz:** urriaren 28an, 09:00etan

ZINEMA

LEIOA

► **Perseo zineforuma: Arrugas.** Urriak 23, 20:00etan. Kultur Leioan.
► **Perseo zineforuma: Lola.** Urriak 30, 20:00etan. Kultur Leioan.
► **Perseo zineforuma: Welcome.** Urriak 6, 20:00etan. Kultur Leioan.

ERANDIO

► **Ted.** Urriak 25, 19:30etan. Astrabuduko Josu Muruetan kultur etxean. 2 euro.
► **Piratas.** Urriak 27, 17:00etan. Astrabuduko Josu Muruetan kultur etxean. 2 euro.
► **Elefante blanco.** Urriak 27, 20:00etan. Astrabuduko Josu Muruetan kultur etxean. 2 euro.

GETXO

► **Zine-kluba: Los idus de marzo.** Urriak 26, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.
► **Ice Age 4: La formacion de los continentes.** Urriak 28, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.

BERANGO

► **El hotel Marigold.** Urriak 27, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

BESTEAK

BARRIKA

► **Irakurketa suspertzeko tailerra: idazketa-tailerra.** Urriak 25, 18:00etan. Liburutegian.

GORLIZ

► **Puzgarriak.** Urriak 27, 12:00etan. Ibarreta plazan.

ERANDIO

► **Astrabuduko Fotocluben hitzaldia.** Urriak 30, 19:30etan. Fotocluben lokalean.
► **Radio Club Takolosen argazki-urteera.** Urriak 28, 08:00etan. Iturribengoa kaleko autobus geltokian.

GETXO

► **Liburu-aurkezpena Manuel Torres Goirigaz: Llegado de mar.** Urriak 30, 19:00etan. Algortako San Nikolas liburutegian.

SOPELA

► **Liburu-aurkezpena Emilio Lopez Adanegaz: ETAre estrategia armatuaren historiaz.** Azaroak 7, 19:30etan. Larrabasterrako Plaza Beltza kulturgunean.

PLENTZIA

► **Perretxiko-astea.** Urriaren 29tik azaroaren 4ra. Goñi Portalen.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



UNAX
**BI
 HO-
 TZEZ**

Euskara bihotzez

Urtero legez urria aldera, aurten ere, leioztarrek txitxiburruntziaz gozatu dute; dantzak, musika, bazkaria, giro ederra, eta nola ez, txitxiburruntzia egon zen. Berbalamiñe Leioako euskara elkarteak ekimen honen bidez euskara sustatzea du xede nagusi; halere, aurten, Unax herriko haurra gogoan izan, eta bera laguntzeko ere izan da bertan batutako dirua; euskaraz eta elkartasunez blai igarotako eguna!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Gurdizaina

teilak garraiatzen, 1912an

“Nire gurdia lapurtu zidaten, atzo erromerian...”. Anton Saratxori, ordea, ez zioten lapurtu, ez behintzat argazki hau egin ziotenean. Berau dugu argazkiko protagonista, gurdizaina. Gorlizko Kultur Etxeak utzitako argazkia da eta, beraz, pentsatzekoa da bertakoa izan zitekeela Saratxo edo Gorlizen egin ziotela argazkia. Duela ehun urteko irudia da, 1912koa; ikusten denez, teilak garraiatzen zebilen Saratxo une horretan. Orduan, idiek tiratzen zuten gurdiez eta, beranduago, zaldiek ordezkatu zituzten: autoetako motorren zaldiek. Lotu bedi irudi hau lehenengo garraiobideen lekuko.

Gorlizko Kultur Etxea

[berbetan]

Dantzari, irakasle, maisuen maisu, koreografo eta Euskal Dantzari Biltzarreko ikerkuntza arloko kide da Koldo Zabala (Getxo, 1935). Aita ELA-ko sortzaileetakoa, dantzaria, eta I. Dantzari Egunaren (Bilbo, 1938) antolatzaile. Familiak Iparraldean errefuxiatu behar izan zuen. Han ikasi zituen euskal dantzak, Parisen dantza klasikoa, eta gero garaikidea ere bai. 1947an Oldarra Balletean sartu zen, inoiz ez uzteko. Ballet klasikoko katedradun, Baionako (Euskal Kostaldeko) Kontserbatorioko dantza klasiko puruaren irakasle... Munduan zehar dabilzan dantzari profesionalen maisu: Iker Murillo, Eneka Bordato edo Jon Maya. Altu dio: *“Ez naiz dantzaz bizi, nire bizitza dantzatzen dut”*, jubilatzeke asmo barik.

Koldo Zabala

Dantza, bizi txinparta

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Getxoko Udala**

—Dantzaren hiru iturriren edalearen ibilaldia zelakoa da?

—Neba-arreba denak euskal dantzetan aritzen ziren, neu ere hasi nintzen. Ingeniaritza elektronikoko ikasketak egitera abiatu nintzela, benetan barru-barruan hunkitu ninduen filma ikusi nuen, *Las zapatillas rojas*. 16 bat urte izango nituen, zirrara berezia sortu zidan, ezin ulertu zergatik, baina negarrez itzuli nintzen barnetegira. Orduan erabaki nuen: “dantzari izan nahi dut”, eta ogibidez izango nintzela. Biarritzen hasi nintzen dantza klasikoa lehen urratsak ematen, jarraian, 18 urterekin edo, Parisera joan, Oldarra Balletak ikuskizuna zeukalako han, eta ez nintzen itzuli. Zorte handia izan nuen, Alexandre Volinine-ekin ikasteko aukera izan nuen, bere akademian, bertan aritzen ziren Operako eta Marquis de Cuevas-ko dantzari asko! Garai hartan ni gaztea nintzen, eta eurak dantzari handiak! Urte, urte eta erdi ikasi nuen berarekin, eskaini zuen azken ikastaroan parte hartu nuen, eskola amaitu eta ordu erdira zendu zen bihotzekoak jota; umezurtz lotu nintzen barriri. Biarritzera itzuli,

baina handik hiru hilera Yves Brioux-Ustaritz ezagutzeko aukera izan nuen; maisu handia, Parisko Operako dantzari nagusiak hezi ditu, Operako eta Parisko Goi mailako Kontserbatorioko irakasle... 1956-7an hasi nintzen berarekin ikasten, 1982ra arte. Urte hartan eskuratu nituen Frantzia Estatu osoan irakasle jarduteko beharrezkoak diren ziurtagiriak. Brioux-Ustaritz nafar jatorrikoa zen, sentimendu handiko pertsona, katolikoa, Operako dantzari nagusi izandakoa... Hautaketa luze baten ostean, Felix Blasca koreografo

“Aberribako-karnetarekin nengoen, eta argi nuen aitarekin itzuliko nintzela edo ez nintzela itzuliko, zoritxarrez...”

ezaguna eta biok hartu gintuen bere etxean apopilo, eta esan zuen “judutar bat eta euskaldun bat hartuko ditut...” Eta berarekin ikasi nuen ia nire bizitza osoan. Oldarraren zuzendaritza artistikoaren ardurara hartu nuen, baina, Parisera ikastera joaten jarraitzeko aukera izateko baldintzarekin. Dantzari klasikoarena zelanbait utzi nuen Oldarrara itzultzeko; egiazki, ni

Bordeleko Teatro Nagusian bakarlari klasiko bezala kontratatuta bainengoen. Gero, egin beharreko Ministerioko lehiaketak gainditu ostean, Brive-ko Nazio Eskolan irakasteko izendapena lortu nuen, Ministerioak Baionako Kontserbatorioari neu irakasle hartzea ezarri zion arte. Han, Baionako Musika Eskolan, dantza klasikoko lehenengo eskola zabaltzeko aukera izan nuen. Katedra lortu ostean, ikasten, lanean jarraitu nuen, koreografiak sortzen... Brioux-Ustaritzten etxean bizi nintzenez, aurreko belaunaldiko dantzari

ospetsuenak, Roland Petit, Peretti, Sergio Lifar, Maurice Béjart e.a. ezagutzeko aukera izan nuen. Garai hartan nik Béjart ez nuen ulertzen, nire pentsatzeko modua klasiko purua zen eta aldrebeskeritzat nuen motorrerako kasko batekin dantza egitea! Beraz, kontuak zig-zag-ean egin nituen: tradizionalarekin hasi, gero ikastera joan nintzen, ostean Oldarrara



itzuli, Oldarrak Parisera itzultzen utzi, klasiko irakasle titulua ater... Euskal Herri-
ra arinegi itzuli nintzen, beranduago egin-
go nuela esan banuen ere; itzultzer ia be-
hartu ninduten, batez ere muga pasatzera.
Garai hartan ni “apatrida”, aberribako-
karnetarekin nengoen, eta nik argi nuen
aitarekin itzuli ezin banintz ez nintzela bu-
eltatuko... zoritxarrez, aita Franco baino
lehenago hil zen. Oldarrak frantses ala es-
painiar paperak ateratzea eskatu zidan,
garbi nuen ez nuela espainiarra izan nahi;
frantsesa aukeratu, eta zorzea izan da bes-
tela ezingo nintzelako irakasle izan. Bestal-
de, Euskal Herrian jokatu eta gero, kon-
turatu nintzen zerbait egin behar genuela
euskalduntzeko, eta hala nazio mailako
lehenengo dantzari eguna egin genuen,
Iruñeko zezen plazan, 1975ean. Bilbon
edo Donostian egitea genuen, baina esan
nien, “lehenengoa Iruñean egingo dugu,
gure kulturaren hiriburua delako eta bes-
telako arrazoiengatik ere bai”.

—Nozbait esan duzu euskal dantzak “fal-
tsuak” direla, “helburu politikokoak”...
—Ene etxean bizi izan dut. Euskal herri-
tarra berez dantzaria da, batez ere gizonez-
koak, betebehaz bezala, gainera; egun, zo-
rionez, emakumeak ere bai. Anaia denek
dantzatzuten zuten, eta arrebek josi! Ez nago
ados, baina hala zen. Gerra zibil ostea zen,
zaurituta zeuden militante, gudari askok
abestu egiten zuten, dantza egin zezakete-
nek dantzatzuten, derrigorluta baleude be-
zala, euren nortasuna aurkezteko era balitz
bezala... Uste dut nire aitak eta garaiko
beste batzuek, bat baino ez aipatzearen,
Bizkaiko dantza eraldatu zutela, helburua:
guztiek dantza bera modu berean dantza-
tzeko jantzi berdinekin. Uniformetasun
kontua, nolabaiteko nortasun batasuna-
ren alde; baina min handia egin dezakee-
na, akatsa izan daitekeena: dantza guztiak
berdintzean, izaera originala galdu da,
“Dantzari dantza”-ren Iurretako, Garaiko
aldaerak galdu dira, eta benetan kontu oso
interesgarriak zeuden. Muga igaro nuene-
an euskal dantzetako jende oso ezaguna

aurkitu nuen, Iurretako Abasolo, Lekeiti-
oko Iñaki Irigoien e.a. Eta esaten zidaten,
“aizu, Koldo! Ez da horrela...” Konturatu
nintzen, noski, modu batzuk galdu egin
zirela aita eta beste zenbaiten dantzak ber-
dintzeko “erru” edo borondateagatik.
Hortik ondorioztatu genuen, ikertzeko ar-
dura geuk genuela; leku askotan ez digute
erakutsi izan nahi, hainbat arrazoienga-

“Uniformetasunak, nortasun batasun- naren alde, min egin dezake; dantzak berdintzean, izaera originala galdu da”

tik; Otsagin, Zmarragan... Alde izugarria
zegoen irakasten genuenaren eta erreality-
tearen artean! Garrantzitsua da dantzak
ahalik eta autoktonoen, originalen gorde-
tzea. Uste dut, nahiko zintzoa izan naize-
la, ballet bat egin dudanean beti esan du-
dalako: kontuz! Hau balleta da, nire inter-
pretazio propioa!

—Oraindik, eztabaidak badira zenbait
dantza gizonezkoek bakarrik dantza di-
tzaketela diotelako batzuek; “Agurra”...
—Eztabaida baino zerbait txarragoa dela
uste dut. Esaterako, “Agurra” gipuzkorre-
an, Iztuetaren esanetan, ezin da airean bu-
elta eman, beti dantzatzuten zaion pertsona-
ri aurrez aurre dantzatu behar delako.
“Erregelak”-en gizonezkoak emakumea-
rentzat egiten du dantza, tradizioan. Le-
keition edo Markinan bada Aurresku bat

“Eztabaidak gaindituta behar luke! Egun emakumea da dantza trazionala irakasten eta gordetzen dabilena”

emakumezkoek bakarrik dantzatzuten dute-
na. Baina, ez du esan nahi tradizioa ezin
denik aldatu. Azaroaren 2an emango du-
dan balletean, Arzallus eta Maia bertso-
lariek idatzia, pertsonaia Mari da, Anbot-
koa edo Orikoa, haur dela, neskato, na-
gusi (nik jokatzuten dudana), eta gaur egun-
goa. Historian, emakumezkoa da gaitz

guztien jatorria; hori ez da gure historia,
Inkiszioarena baino, inposatu digutena.
Erakutsi gura duguna da berdindela,
emakumea gizonaren lekuan dagoela; sa-
latzen dugu pentsatzeko beste modu hori.
Nik jokatzuten dudana zelaitik dator, belar
batzuk batu ditu, eta ukenduak prestatzen
eta dantzan hasten da, Laboaren “Baga-
Biga”-ren doinura. Musika indartu heine-

an bere dantza ere gorantz doa... lurrera
jausten den arte, eta emakume bezala su-
fritzen du. Urrezko orraziaz, lurtean dela,
apurka Inkisidoreek sorgin deritzon
bihurtzen da, eta atzetik joango zaizkio,
ehizan, harrapatuko dute, torturatuko du-
te eta su emango digute. Gero, erdi-sorgin
erdi-animalia den horretatik, azkenean,
bere botere guztia gaur egungo emakume-
ari helarazten dio, jeans-ak janzten dituen
horri, lanera doanari... Itzuliz, lehen, ema-
kumezkoek ez zuten dantzarik egiten, ge-
ro gizonezkoek dantzatu nahi ez dutena
soilik dantzatzuten dute, nik neuk bizi izan
dut; “Sagar-dantza” Arizkunen gizonezko-
ek dantzatzuten zuten, orain emakumeek,
“Arku-dantza” Bizkaian mistoa egiten du-
gu, baina Gipuzkoan Iztuetaren garaian
gizonezkoek, gaur emakumeek bakarrik...

kua” gizonezkoena zen, bai, gaitariak gi-
zonezkoak bakarrik, txistulariak gizonak...
Gaur egun ez da hala! Emakumezko txis-
tulariak dira eta ez dago arazorik!! Egia da,
badirela dantza batzuk gizonezkoagoak
direla, gizontasuna eta kementasuna lo-
tzen diren aldetik, adib.: “Makil-dantza”
basakeria-edo erakusteko da; “Banangoa”-
k, “Binakoa”-k, izaera bat dute gizonen ala

“Polizia, militarrez gainera, alboan bizi zen jendea zen bizitzeko eta pentsa- tzeko modu bat ezartzen ziguna”

emakume dantzatu. Ez du esan nahi gi-
zonezkoentzat bakarrik eginak direla.
Eztabaidok gaindituta behar lukete...

—Getxon ere eman duzue protagoniste-
tako bat zu zaituen *Oroitzen naiz... lana*.
Dantzari-gorputzaren eta horren memo-
riaren gaineko hausnarketa da; eta zuk
esana, zure nortasuna islatzen duela.

—Mizel Theret koreografoak, nire ikasle
izanak, proposatu zidanean, hasieran, eze-
tza eman nion: “omenaldiak eta laguntzak
gaztetan egin behar dira, piano-jotzaileari
edo irakasleari zelan ordaindu ez dakizu-
nean... Ez dut omenaldi beharrik”. Ez zela
omenaldia, den-dena esan ez bazidan ere,
gure bizitza kontatzea zela... Seme-alabek
edukia irakurri eta egin behar nuela esan
zidaten, besteen esanak ere entzuteko...
Abentura hasi genuen! Nahiko gogorra

izan zen, bakoitzak bere erara sentitzen zu-
en, niretzat bizi-bizia zen, ordura arte dan-
tzari bezala egin izan dudanez oso ezber-
dina. Ballet honetan garrantzitsua ez da
jauzi handia egitea, besoak astintzea, era-
kusketa, baizik eta mugimendu gutxiarekin
barruan sentitzen genuenaren indarra eta
sentsibilitatea iradoki behar genion ikusle-
ari. Laboaren musika du, lagun-mina nu-

en, gutxira zendu zen, Xabier Mendizabal
dantzari-laguna ere bai... Horrek are ge-
hiago hunkiarazten ninduen. “Haika mu-
til” doinuarekin, ni lurtean nago, pott
eginda, altxatu, emozio handiarekin! Ne-
garrez... Hurrengo zatian, entzuten da:
maite dut sakonki herria, higuintzen dut
sakonki, ezagutzen dut eta ezezagun zait,
bizia eta heriotza eskaintzen dizkiot... Gu-
re bizitza kontatzeko esan zigun Mizelek,
oroitzen naiz: neba-arreba guztiak zelan
joan ziren AEBera, Txilera...; gogoan dut
aitak Gabon batzuetan zelan zioen “hu-
rrengo urtean denak batera etxean...”, eta
ez! Akorduan dut Zabala eskola, 7 urte
nituela, bigarrenez pasarazi zidan muga
amak, Biarritzetik Getxora... “Cara al sol”-
eta abestera behartuta; izena ematean segi-
dan esan zidan “usted se llama Luis”...


zigorak... Diktadura hutsa! Polizia eta mi-
litarrez gainera, gure alboan bizi zen jen-
dea zen bizitzeko eta pentsatzeko modu
jakin bat ezartzen ziguna... Ikuskizunean
batek euskaraz, besteak frantsesez eta nik,
gaztekeraz egitea proposatu ziguten. Ezetz,
gaztekeraz ez nuela egingo, azkenean baiez-
koa eman behar, baina esan nien nik nahi
nuena esango nuela: txikitari osaba Joxek
segan, idiak lotzen-eta zelan irakatsi zigun
kontatzen dut; garai oparoak izan ziren,
benetako bizitzarekin kontaktuan geunde-
lako, ez inposatutakoarekin. Burua jaiste-
ko esan zidatela gogoan dut, gero, nire ira-
kasleak burua altxatzeko esan zidala ere
bai... Koreografiari dagokionez, gure adi-
nak kontuan hartuta, Mizelek oso ondo
eroan du, oso zaila da gazte batek guri esa-
tea “hala egin behar duzue...”. Momentu,
keinu bakoitzari eta isiltasun bakoitzari
benetako esanahia ematen jakin du, ikus-
leak ondo ulertzeko. Isiltasuna dantzatzea
zein garrantzitsua den ere helarazi du. Ari-
ma biluztu dugu; eta berak guri zelan hitz
egin eta nahi zuena helarazten asmatu du,
hiruron izaera zailak eta gogorak, dantzaz
ondo ala txarto bizitzearren, bateratzen ja-
kin du... Apurka-apurka, gizatasun han-
diz, profesionaltasun handiz. Sakonki
hunkitu nau lan honek. Eta istorioa Eus-
kal Herriatik kanpo ere ulertzen da, esate-
rako, Lyon-en eman dugunean arrakasta
izan du. Jende asko, ikuskizuna amaitze-
an, gehiagoren penaz lotu da! ○

Zabalaren talaiatik: dantzaren egoera Euskal Herrian

—Osasuntsu bizi da dantza gurean?
—Baikorra naiz. Dantzari bikainak eman
ditu; Lucia Lacarra aipatu gabe! Ez naiz
dantzaz bizi, nire bizitza dantzatzuten dut.
Nire ibilbidean egin nahi nuen... Erru-
siarrek ballet modu bat sortu zuten,
espainiarrek klasikoa, flamenkoa, klasi-
zismo bat e.a. Eta nik uste nuen, agian,
bide bat aurkituko nukeela estilo propioa
zukeen euskal dantzan oinarritutako
nazioarte mailako dantza sortzeko; eta

hori ez dut aurkitu. “Ez dok amairu”n
ezagutu nituen Mikel Laboa, Benito
Lertxundi eta... eta lagundu nituen garai
hartan; eta haiek kantuan eragindako
eztanda eta aurrera pausoa, dantzan
lortu nahi nuen. Nik ez dut lortu, baina...
Jon Maya, eta Kukai ikusten egon nin-
tzen Bilbon, perkusioarekin egindako
ikuskizuna... Oso gustuko izan nuen!
Dantza tradizioaletik aldendu dira, bide
garaikideagoa aurkitu dute, bai istorio

bat kontatzeko eta bai erakustaldirako
ere, hau da, esateko: euskaldunak gara,
eta hala jokatzuten dugu, dantzatzuten
dugu, eta “Ezpata-dantza” nahi dugun
moduan, horrela, dantzatzuten dugu, per-
kusioarekin... Niretzat bide hori egina
dago, horregatik baikorra naiz. Nik pen-
tsatzuten nuen: “Ene, ama! Ez dugu asma-
tuko!, dantzari onak bai, baina... inork
sortuko du bestelakorik?”. Egina dago,
beraz guztiz baikorra naiz!



Sentitzearen islak

Eguneroko uneak harrapatu nahi izan ditu Eduardo Camino argazkilarikubatarrak. Egunero, konturatu barik, gure ondotik igarotzen diren une eta sentimenduei arreta jarri, eta irudi bilakatu ditu. Argazki guztiek zer edo zer adierazi gura izan dute: alaitasuna, maitasuna, lasaitasuna... ohiko egoeretan ere sentitzeko, alaitzeko gai garela erakutsi gura izan du Caminok, eta argazkietako protagonistei begiratu, eta horrela dela konturatuko gara.

Argazkiak: **Eduardo Camino**





Hizkuntza Erabileraren VI. Kale Neurketa > Uribe Kostan

Mankomunitatean euskararen erabilerak gora, Getxon eta Erandion behera

Uribe Kostako Mankomunitatean euskararen erabilerak gora egin du, hizkuntza erabileraren azken kale-neurketaren arabera, 2006koagaz alderatuta; Getxon eta Erandion, ostera, behera egin du. Kasu guztietan, umeakaz berba egiteko egiten da gehien euskaraz. Berangon eta Leioan ez da neurketarik egin oraingoan.



2008ko Berbalagun Eguna, Algortako Portu Zaharrean

2011ko irailean eta urrian egin zen Hizkuntza Erabileraren VI. Kale Neurketa. Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herri osoan neurtu zuen hizkuntzaren erabilera eta, tartean, gure eskualdeko herri gehienetan. Klusterrak UK-ri emon datuen arabera euskararen erabilera bere horretan dago Euskal Herrian, baina gurean aldeak daude herritik herri-ri: Uribe Kostako Mankomunitatean gora egin du, baina Erandion eta Getxon behera; Leioan ez da neurketarik egin.

Lauzpabost urtean behin burutu ohi da neurketa 1989az geroztik. 2011koa izan da seigarrena eta horien artean egin dira 1993an, 1997an, 2001ean eta 2006an. Klusterrak jakinarazi duenez, Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako herrietan egiten dira neurketak, eta hortik beherako batzuetan: guztira 250.000 hiztunetik gora behatzen da kalean berbetan: ezer galdetu barik, kalean dauden pertsonak darabilten hizkuntza jasotzen dute neurtzaileek, aurretik zehaztutako ibilbide bati jarraituz.

Erandion, Getxon eta Uribe Kostako Mankomunitateko herrietan metodologija bera jarraitu da, baina Mankomunitatean bere berezitasunei egokitu zaio. Azken horrek neurketa berezia eskatu zuen eta, horrenbestez, Soziolinguistika

Klusterrak datu eta ondorio zehatzak emon ahal izan ditu. Erandion eta Getxon dagokienez, barriz, orokorragoak dira dauzkagun datuak eta ondorioak.

Baina horietan sartu aurretik, zera

«Erandion eta Getxon euskararen erabilera asko jaitsi da, 1989ko egoerara itzuliz»

esan behar da: EUSTATEk 2006an kale-ratu zituen hizkuntza-gaitasunari zegozkien datuak eta, horien arabera, euskaraz egiteko gai dira herritarren %24,9 Erandion, %29 Getxon, %59,4 Lemoizen, %37,5 Gorliz, %36,1 Plentzian, %43,2 Barrikan, %46,9 Urdulizen eta %38,8 Sopelan.


Eta goazen neurketagaz. Azaltzea Mankomunitateko ia herri denetan egin

dela, Berangon izan ezik; hau da, Lemoiz, Gorliz, Plentzia, Urduliz, Sopela eta Barrikan. Azken horretan neurketarik ez zen egin 2006an, eta orduan Berangon egin zen.

Klusterretik jakinarazi dutenez, ezin dute esan erabateko ziurtasunez neurketan jasotakoa Mankomunitateko biztanleen erabilera denik, eta zuzenagoa ei da esatea Mankomunitateko udalerrietako kaleetan jasotakoa dela, ezin baitute ziurtatu kalean neurtutako hiztun guztiak herrikoak zirenik: 5.148 elkarrizketa behatu dira eta 13.397 pertsonak osatu dute lagina.

Mankomunitatean euskaraz gora

Hasieran aipatu bezala, Mankomunitatean %4 egin du gora euskararen erabilera: 2006an hiztunen %9,3k egiten zuen euskaraz eta 2011n %13,2k. Bes-



Euskararen erabilera herriz herri, 2006an eta 2011n. Iturria: Soziolinguistika klusterra

talde eta azken neurketaren arabera, gaztelaniaz egiten du %86k eta beste hizkuntzetan %0,8k.

Herriei begiratuta, euskaraz erabiltzen da Lemoizen % 16,4; Gorliz %21,7; Plentzian %17,3; Urdulizen %13,5; Sopelan %9,4 eta Barrikan %20. Horrenbestez, Sopelan eta Urdulizen behera egin du eta gainontzeko herrietan gora, ondoko grafikootan ikus daitekenez.


Baina beste datu garrantzitsu bat ere ikus daiteke horietan. Izan ere, espero daitekeen euskararen erabilera ere eza-gutxera emon du Klusterrak. Horretarako, arestian aipatu EUSTATEn 2006ko datuetan oinarritu da. Horrela, espero daitekeena baino euskaraz gitiago erabiltzen da Lemoizen, Sopelan eta Urdulizen, eta espero daitekeena baino gehiago Barrikan, Gorliz eta Plentzian.

Erandion eta Getxon behera

Erandion eta Getxon, ordea, nabarmen egin du behera euskararen erabilera 2006tik 2011ra: Erandion herenera —%4,2tik %1,26ra—; eta Getxon erdira —%5,48etik %2,47ra—. Erabilera, 1989ko egoerara itzuli da: orduan %1ek egiten zuen euskaraz Erandion eta

%2,8k Getxon; azken horretan, gainera, inoiz jasotako daturik baxuena da.

«Espero baino euskaraz gehiago erabiltzen da Barrikan, Gorliz eta Plentzian»



Euskaraz gaitasuna, erabilera eta espero den erabilera, herriz herri. Iturria: Soziolinguistika klusterra

Gainera, egoera larriagoa da espero daitekeen erabilerari erreparaturaz gero: Erandion %4,1 eta Getxon %5,7.

Umeakaz gehiago euskaraz

Hizkuntza-erabilera neurtzerakoan ere hiru aldagai izan dira kontuan: hiztunen sexua, adina eta umeen presentzia.

Umeek egiten dute euskaraz gehien eta helduek, eurakaz daudenean batez ere

Horrela, Mankomunitatean parekatuta dago emakumeen eta gizonen artean euskararen erabilera; gainontzeko herrietan daturik ez dugu. Bai, barriz, adinari dagozkionak: umeek erabiltzen dute gehien euskaraz, eta ondoren behera egiten du euskarazko hiztunen kopuruak, herri denetan. Era berean, azpimarratzekoa da helduek euskaraz askoz gehiago erabiltzen dutela umeakaz daudenean, eta oso gitxi euren artean hitz egiteko; hori ere joera orokorra da, bai gurean, bai Euskal Herrian. Artikulu hau amaitzeko, eskerririk asko Soziolinguistika Klusterrari datuok partekatzeagatik. ○



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO




GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Genero-ikuspegi filmak

Sopelako Itzartu elkarteak **martxan** ipini du genero-ikuspegi **zinema-zikloa**



Katmandu, un espejo en el cielo filmaren irudi bat. Info+: itzartu@hotmail.com

Itzartu emakume elkarteak antolatzen dituen hainbat ekimenen artean, besteak beste, genero ikuspegiko zinema-zikloa martxan ipini zuen urri erdialdean. Lehenengo emanaldia egin badute ere, aurrerantzean ere, eta apirila bitartean 10 filmegaz gozatu ahalko duzu.

Ez da zine-zikloa antolatzen duten lehenengo biderra, eta joan den urtean egin legez, emanaldiak Kurtzio kultur etxean izango dira, eguenetan, arrastiko 18:00etan.

Euskaraz filmik emongo ez badute ere, pantailaratuko dituzten filmak ondorengoak dira: azaroaren 8an *La llave de Sarah* (Gilles Paquet-Brenner, Frantzia, 2010), azaroaren 22an *La voz dormida* (Benito Zambrano, Espainia, 2011), eta abenduaren 13an *La dama de hierro* (Phyllida Cirstian, Erresuma Batua, 2011). Gero, Gabonetako oporretako etenaldiaren ostetan, urtarrilaren 10ean *Orgullo y Prejuicio* (Joe Wright, Erresuma Batua, 2005) emon-

go dute, urtarrilaren 24an *Siete mesas de billar frances* (Gracia Querejeta, Espainia, 2007), otsailaren 7an *Katmandu, un espejo en el cielo* (Iciar Bollain, Espainia, 2012), otsailaren 21ean *Pago justo* (Nigel Cole, Erresuma Batua, 2010), eta martxoaren 14an *La fuente de las mujeres* (Radu Mihaileam,

«Danatara 11 film eskainiko dituzte, urri eta apiril bitartean, Kurtzio kultur etxean»

Frantzia-Maroko-Belgika, 2011). Aste Santuko oporretatik bueltan, apirilaren 11n *Margin Call* (J. C. Chandor, AEB, 2011) lana eskainiko dute eta amaitzeko, apirilaren 25eko azkeneko emanaldian *Las chicas del 6º piso* (Philippe Le Guay, Frantzia, 2012) lanagaz gozatu ahalko da.

Film-ostean zine-forum antzekoa prestatuko dute, hau da, ikusi barri den filmaren gainean eztabaidatzeko. ○

Zuzen-Zuzenean zirkuitua

Apiril bitartean **100 talde baino gehiago**, **53 kontzertu**, **12 areto eta...**



Moby Dick-ek ere parte hartuko du zirkuituan. Info+: www.facebook.com/ZuzenZuzenean

Hego Euskal Herriko musika aretoak laguntzea eta kontzertuak sustatzea helburu dituen Zuzen-Zuzenean zirkuitua Euskadiko Soinua programaren barruko ekimena da, eta Kultura-Live areto pribatuaren elkarteagaz elkarlanean garatzen da.

Laugarren ekitaldia da aurtengoa, eta apirila bitartean iraungo du eskaintzak: 100 talde baino gehiagok parte hartuko du eta 53 kontzertu inguru eskainiko dituzte. Besteak beste, talde nagusi legez, ondorengo hauek jardungo dute: Hesian, Egurre, El Columpio Asesino, Soziedad Alkoholika, Su Ta Gar. Childrain, Jon

Robles, Pablo Marin Stet, Moog Indigo Trio, Sosegua, Barricada, Zea Mays eta Moby Dick-ek. Eta emanaldiak, berbarako, areto hauetan izango dira: Bermeoko Kafe Antzokia, Bilbaina Jazz Club, Bilbo-ko Kafe Antzokia, Helledorado (Gasteiz), Doka, Jimmy Jazz (Gasteiz), Ondarroako Kafe Antzokia, Plateruena, San Agustin Kulturgunea eta Cotton Club (Bilbo). Hitzaldi musikatuak, jam-sessionak, liburu-aurkezpenak e.a. antolatuko dituzte.

Zuzen-Zuzenean Zirkuituak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 200.000 euroko laguntza jaso du. ○

Ian barria > mugaldekokoak

Berako laukote nafarrak *Begiak lekuko* disko barria plazaratu du. Mundu mailako testu eta doinu antologia txikia eskaintzen du lanak, besteen abestiak moldatzera jo dute Mugaldekoez oraingoan. Gustuko abeslari eta taldeen (Bob Dylan, Leonard Cohen, Johnny Cash e.a.) hainbat kantu, eta gustuko idazleen (Wisława Szymborska, Nazim Hikmet, Margarita Robleda e.a.) eta Zelaietak berak sortutakoen zenbait idatzigaz osatzen da diskoa, berbak euskarara ekarrita. Zuzenean, pop-rock, folk eta country musikaren lagungarri, arte eszenikoek lagunduko dute ikuskizuna.

Info+: www.mugaldekokoak.com

birak > XX. Musiketari

Formatu txikiko birek osatzen dute Musiketari, egitaraua hauek osatzen dute: Haight Ashbury (blues-folk-psychedelikoa, Britainia Handia; azaroak 11), Nervous but Excited (Folka, AEB; azaroak 25), Tom Russell (country-a, AEB; azaroak 16), Elliott Murphy & Olivier Duran (rocka, AEB; urtarrilak 13), Paddy Keenan (folka, Irlanda; urtarrilak 27), China Crisis (pop-rocka, Britainia Handia; otsailak 17), Martin Carthy (folka, BH; martxoak 3), Lakecia Benjamin (jazz-soula, AEB; martxoak 17), Charles Walker (funk-R&B-Bluesa, AEB; apirilak 7), Eddi Reader (bakarlaria, Eskozia; apirilak 21), Kuunkuiskaajat (munduko musika, Finlandia; maiatzak 5) eta Phil Cunningham & Aly Bain (folka, Eskozia; maiatzak 19). Kontzertu danak BBK Aretoan (Bilbo) izango dira, 20:00etan. Sarrerak gonbidapen bidez, Leioako EHUko Gazte Informazio bulegoan.

diskoak

Ur ederra kirats infini...
Bizardunak
Baga-Biga



Ur ederra kirats infinituan hirugarren diskoa aurkeztu du bizardunen taldeak. "Folk progresiboa zeltiar kutsuagaz nahastuta eta rocka gehituz" osatzen dute taldearen odola eta euren ADN-tzat jotzen dute: "testuetan Euskal Herriko historia politikoa eta kritika soziala" egitea, eta esan barik dora, jai-giroagaz ere konprometituta daudela.

Zuhaitz Zatituak Blues...
Zuhaitz Zatituak Blues...
Hotsak



Blues, r&b eta funk doinuak jorratzen dituen Zuhaitz Zatituak Blues Band Soruluzeko laukote gazteak 2011ko udan emon zituen lehenengo pausoak. Taldearen izen bera daroan lehenengo diskoa euskarazko eta ingelesezko 8 kantuk eta Muddy Waters-en "Hoochie Coochie" eta ZZ Topen "La grange" abestien bertsioek osatzen dute.

Erraiak
Xabi San Sebastian Band
Elkar



Donostiarrak Xabi San Sebastian Band proiektu barriari ekin dio, azaldu legez, "Xabi San Sebastian, bere musika-lanak direlako, eta Band, musika-lan horietan ukitu berezia nabari delako. Taldearen parte hartzeak nabarmen egin du gora, eta soinua sendotu eta aberastu egin da". Eta horren aurkezpen legez, *Erraiak* disko barri hau.

etorri eta ikusi!!

MORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kalegoz bar) Tf. 94 491 68 05 Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu %50eko deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean Tf. 94 430 15 00 (15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45 Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Martxan Literatura Eskola

Eskolak hilaren 27an hasi eta maiatzean amaituko dira; hilean behin, zapatuetan

Bederatzigarren ekitaldia izango du aurton Larrabetzu aldean jaio eta gaur egun Euskal Herriko hainbat gelatan ikastaroak eskaintzen dituen Literatura Eskolak. “2012/2013ko trukeurtea” prest dute dagoeneko, eta guztira, han-hemen, zortzi “irakasgai” eskainiko ditu.

Urte osorako matrikulak 20 euro balio du eta, eskola jakin batek edo batzuek, bakoitzak 10 euroko prezioa dauka.

Eskolak hilean behin izango dira, hil bakoitzari dagokion zapatuan, eta goizez, 10:00etatik 14:00etara.

Antolatzaileen esanetan, Literatura Eskolara “literaturazalea den oro etor daiteke. Ez dugu titulurik ez eskatzen ez eskaintzen. Elkarrengandik ikastea da gure xedea”. Hala, landuko dituzten gaiak edo

«Zortzi eskola: Sarri, Txillardegia, itzulpengintza, Amaia Ezpeldoi, Cheever e.a.»

autoreak hurrengoak dira: “Joseba Sarrionandiaren itzulpenak”, Aiora Jakar emongo du eskola, urriaren 27an, Hendai; “Txillardegia”, Markos Zapianek gidatuko du eskola, azaroaren 17an, Donostian; “Euskal itzultzaile aitzindariak”, abenduaren 15ean, Oretetan; “Gure literatura erdaretan”, eskola Elizabete Man-




Unai Iturriagak diseinatu du kartela

terolak zuzenduko du, urtarrilaren 19an, Zarautzen; “Katalina Eleizegi eta Katalina Erauso: genero eta nazio identitateak euskal antzerki modernoan” gaia Amaia Alvarez Uriak bideratuko du, otsailaren 16an, Gasteizen; “Sorterritik urrun. Migrazioa euskal literaturan” gaiak Gotzon Barandiaran jardungo da, martxoaren 16an, Durangon; “Amaia Ezpeldoi” pertsonaiak Iratxe Retolazak egingo du berba, apirilaren 20an, Iruñean; eta “John Cheever” idazlea izango du berbagai H. Canok, maiatzaren 25ean, Bilbon. ○

Info+: www.literaturaeskola.org
eskola@literaturaeskola.com

liburuak



Kolonbian bahituta: 74...
Asier Huegun / Gari Udabe
Txalaparta

Kolonbian bahituta: 74 egun ELNren esku lanean orain dela 9 urte ELNK bahitutako Asier Huegunen bahiketaren inguruko nondik norakoak jaso ditu Udabek. Gerrillariak 74 egunez bahituta izan zuten donostiarra, bitarte horretan idatzitako egunerokoa du ardatz liburuak.



Zorion handiegia
Alice Munro
Meettok

Itziar Otegi, Aiora Jaka, Naroa Zubillaga eta Nagore Tolosak itzuli dituzte idazle kanadiarraren 10 ipuinek osatzen duten bilduma. (Gizon)-emakumeak bizitzan gertatzen zaion horretara zelan egokitzen diren eta zelan bizipen horiek sarri gainezka egiten dieten erakusten dute lanek.

[kirola]

Inhar Ugarte > trinkete jokalaria

“Hemen ez dago trinketean profesionala izateko aukerarik”



Ugartek 5 urte daroa trinketean jokatzen

Hogeita hiru urte besterik ez ditu Inhar Ugartek, eta jada lehiaketa askotan parte hartu, eta sari dezente eskuratu ditu jokalaria getxoxtarrak. Horien artean azkenengoa, joan den urriaren 5ean irabazi zuen Trinketeko Euskadiko Elite Lehiaketan. UK Inhar zoriontzear gain, beragaz ere luze solastu da.

—Noiz hasi zinen trinketean?

—Hamaika urte nituenean hasi nintzen esku-pilotan; halere, urteak aurrera joan, eta 17 urte nituenean erabaki nuen trinketera jauzi egitea. Horrela, bost urte daramatzat trinketean, eta benetan oso gustura nabil; izan ere, emaitza hobeak lortzen ditut trinketean esku-pilotan baino.

—Zelan begiztatzen duzu ibibide profesionala? Zer asmo daukazu?

—Kontua da trinkete jokalaria profesionalak soilik Ipar-Euskal Herrian daudela; hemen Hegoaldean, barriz, ez dago profesionala izateko aukerarik. Eta iparraldeko ei ez zaie gustatzen hemengoak hara joatea jokatzen. Halere, inoiz bertako en-

presak deitu izan digu hara jokatzen joateko. Bestalde, trinketetik bizitzea ezinezkoa da, Iparraldean, berbarako, horretatik bizi den jokalaria bakarria dago.

—Zein panorama dauka trinketeak gurean?

—Iparraldean jarraitzaile askoz gehiago dago; hemen aldiz, ez hainbeste. Bizkaian lau trinket bakarrik daude, horietatik bi

«Ipar Euskal Herrian gurean baino zaletasun askoz handiagoa dago»

Abadiñoakoa, eta Bilbokoa soilik daude erabilgarri. Horregatik, han zaletasun handiagoa dago. Bestalde, hemen Bizkaian badago trinkete jokalaria talde ederra, gero eta jokalaria gehiago.

—Aurrera begira, zer?

—Azaroan badaukagu profesionalen aurkako txapelketa, iparraldeko jokalarien aurka. Hegoaldeko zortzi jokalarik iparraldeko beste 8 jokalariren kontra jokatuko dugu eskubanaka. Espero dugu ondo jokatzea, eta irabaztea. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Letizia Ferreiro > osteopata eta sukaldaritza *begano* ikastaroko irakaslea

“Zapore desberdinak ezagutarazi gura ditut, elikagai biologikoak erabiliz”

Azarotik aurrera sukaldaritza barazkijaleari eta *beganoari* buruzko ikastaroa eskainiko du Letizia Ferreirok Plentzian. Frantziarra izatez Sopelan bizi da osteopata hau. Alberto Moradillo lagunagaz batera emon ohi ditu ikastarook, bera ere osteopata.

—Osteopata izanik, zer dela-eta ari zara sukaldaritza ikastaroak emoten?

—Gaixoakaz lanean konturatu nintzen: erraietako eta digestio-arazoak zituztenek, askotan, elikadurak eragindakoak ziren. Nik neuk ez dut toleratzen laktosa eta bikotekideagaz batera hasi nintzen ikertzen elikadura, bera ere osteopata da-eta. Ohartu ginen egindako okerrakaz: gure gorputza ez dago prestatuta hainbeste proteina hartzeko. Azkenean *begano* erako dietan sartu gara eta, horrela, ez dugu hartzen esnekirik. Halere ez gara guztiz *beganoak*, batzuetan jaten dugu haragia edo arraina; baina gorputzak behar duen tamainan, astean behin edo. Nik, esnekirik gabe ere gozatzen jarraitu gura nuen, baina nire gorputzerako ona izango zen dietagaz; eta egin, egin daiteke. Errezetetan aldaketak eginez, dieta tradizionalekoak bezain onak kasik diren zaporeak topa daitezke.

—Ikastaroan, beraz, sukaldaritza *beganoa* jorratuko duzue gehiago?

—Bai, eskaera handia dago-eta. *Beganoan* animalietatik eratorritako jakiak kentzen dira; adibidez, esnekiak. Produktu horiek gaixotasun asko eragiten dituzte eta hobeak izan daitezkeen beste produktu asko dago merkatuan; izan ere, dietak eragin handia dauka egunerokoan. Geroz eta intolerantzia gehiago dago eta oso zaila da merkatuan topatzea laktosarik



Plentzian izango da ikastaroa; izena emoteko: 946 775 541

edota gantzik gabeko jakiak.

—Zelako platerak sukaldatuko dituzue?

—Klase bakoitzean menu osoa egingo dugu: bi plater eta postrea. Ohikoetatik desberdinak diren zaporeak ezagutarazi gura ditut, elikagai biologikoak besterik ez ditut erabiliko, horietako batzuk agian askorentzako ezezagunak: tofu, seitan,

“Ikastaroa ez da bakarrik *beganoentzat*: edonork dieta hau ezagutzeko aukera izatea gura dut, bereagaz nahastu ahal izateko”

algak, e.a. Ekialdeko errezetak ere egingo ditut, kurkumagaz, karramomoagaz e.a. Gakoa da jakiak ondo konbinatzea, gorputzak behar dituen proteinak hartzeko. Gabezia bakarra da B-12 bitamina, hori haragian bakarrik dagoelako; baina gorputzak gitxi behar du eta ez da zertan haragia eguneroko jan. Kontua da

besteak bezain osasungarriak diren jantziak sukaldatzen ikastea, edo are osasungarriagoak direnak.

—Non topa daitezke jakiok?

—Ohiko dendetan zaila da, baina batzuetan badaude, baita denda txiki batzuetan ere. Ikastaroa ez da *beganoentzat* soilik: edonork dieta hau ezagutzeko

aukera izatea gura dut, bereagaz nahastu ahal izateko. Prezio aldetik dieta orojalea baino merkeagoa da *beganoa*: biologikoa kontsumituz, nik diru gitxiago gastatzen dut haragia eguneroko jaten dutenek baino. Eta denbora aldetik ere ez da asko behar; pentsa, ikastaroan menu osoa sukaldatuko dugu bi ordutan. ○

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.

Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik

Kolaboratzaile barria nauzun heinean kaixo esatea dagokit eta, honegaz batera, ondo etorri izan zaitez, irakurle, UK aldizkarian estreinatzen dugun atal barri honetara. Goiko izenburuan irakurri duzunez, euskal mitologiaren arituko gara txoko honetan hemendik aurrera. Orain arte Fredik idatzitako hainbat artikulutan gaia lantzen bazen ere, beste ikuspuntu batetik begiratuko diogu hemendik aurrera. Euskal Mitologia, bai, baina batez ere bertan agertzen diren pertsonaia, jainko edo izaki magikoak ezagutzeko. Horrenbestez, aldizkariaren zenbaki honetako sarrera burutu ostean, hurrengo artikuluetan pertsonaia mitologikoak ezagutzeko ditugu, banan-banan. Zeintzuk ziren beraien izenak, haien izaerak, non bizi ziren edo, behintzat, non jaso ditugun haiei buruzko kondairak. Eta orain arte egindako lana erabiliz, ikonografia berria ikusi ahal dugu izugarriko ilustrazioei esker.

Zer da euskal mitologia?

Gaiagaz hasteko, betiko galdera planteatu behar da: zer da mitologia? Nire garaian, arlo honetan interesatzen hasi nintzenean, hiztegiatar jo nuen erantzun bila. Eta haxe izan zen topatu nuen erantzuna: “herri edo kultura konkretu batek duen mitoen multzoa”. Hori bai erantzun zuzena, ezta? Baina orduan, zer da mito? Adituek esaten dutenez, kondaira sinbolikoa, munduaren hasierako edo denbora historikotik kanpoko gertakari harrigarrien baten berri ematen duena. Mundua nola sortu zen eta nola azaltzen den, pertsonaien bitartez edo hainbat sinesmenegaz. Eta Euskal Mitologiari buruz hitz

egiten badugu, euskaldunek nola ulertzen zuten mundua, zeintzuk ziren lur honetan bizitzen zirenentzako pertsonaia eta zer-nolako fenomenoak azaltzen zituzten pertsonaia bakoitzagaz.

«Hurrengo atalean gure jainkosa nagusia ezagutzeko dugu»

Gaur egungo gazte batzuen iritziz, mundu globalizatu honetan mitoek ez dute ezertarako balio, aurre-historiako sinesmenak baino ez dira. Dena den, gauza guztiak bezala, erantzuna ez da hain erraza. Gure arbasoen sinesmenak, ohiturak, esanak... gaur egun daukagun mundua ulertzen laguntzen digute. Eta, zer demontre! Nori ez zaio gustatzen edonoiz, mendiko aterpe batean gaudenean, suaren inguruan eserita, antzinako gertakari baten historiako bat entzutea?

Gure mitologiaren ezaugarri nagusiak

Herri zaharren arteko elkar trukaketa betidanik egon da, arlo askotan, baita sinesmenen edo mitoen atalean ere. Hori dela-eta, hainbat lekutako mitologian antzeko ezaugarriak topa ditzakegu. Baina azaletik barnerantz goazenean ezberdintasun ugari ere agertzen da. Gure kasuan, lau baino ez ditut aipatuko, niretzat azpimagarrienak direlako:

—Emakumearen papera. Euskal Mitologiaren jainkosa nagusia emakumea da, Mari Jainkosa.



—Mitologia hurbila. Izaki magiko hauek, gure artean bizi dira, ez Olimpon, edo zeruan.

—Ahozko mitologia. Kondairak eta jakinduria herrikoia belaunaldiz belaunaldi pasatu dira, ahoz aho, idatzi gabe XX. mendera arte. Idatzitako lehenengo datuak bisitariak jasotzen zituzten.

Kristautasunaren aurrekoa. Gure lurraldeetako ohiturak eta mitoak paganoak dira, Kristautasuna heldu baino lehen zeudenak. Eta, handik aurrera, sinesmen barriakaz batera nahasian agertzen dira askotan.

Haxe guztia esan eta gero, hastea baino ez zaigu falta. Hurrengo atalean gure jainkosa nagusia ezagutzeko dugu. Aukera galduko duzu? ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarrri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Asador Cervecera BERANGO

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina trianguetan
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak
Pollo asado, txulettoa, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Peperone muffina

gazia gozokiz jantzita



Oinarrizko osagaiak erraz asko egin daitekeen pintxo da

Inoiz gutxi dastatuko zenuen gozoki itxura daukan jaki gazia. Oraingoan, gonbidatuak, lagunak zein familia harrizko errezeta dakarkizugu, beti bezala, Portu Zaharreko tabernako barratik zuzen-zuzenean. Bai, ikusiko zenuen bezala, madalena itxurako jaki gaziar buruz ari gara, eta hori kozinatzen hasteko irina, oreganoa, emmental gazta, peperone eta legamia nahastuko ditugu. Gaztaren kasuan birrinduta nahastuko dugu beste osagaiak, eta peperonea ere, aurretik zaituko dugu. Hori behin ondo nahastu dugula, gainerako beste osagaiari arreta jarriko diegu; horrela, esnea eta arrautzak batuko ditugu. 180 cl esne eta arrautza bat beharko dugu nahasketa egiteko. Jada, bi mami

ezberdin izango ditugu; horiek guztiak hartu, eta batuko ditugu. Osagai guztiak ondo-ondo nahastu ditugunean mamia siku eta trinkoa geratuko zaigu. Ondoren, mamia madalena moldeetan jarriko dugu; erditik-edo beteko ditugu moldeak, izan ere, mamia legamiagaz handitu egingo da madalenak bezalaxe. Labea 170 gradutan jarriko dugu, eta 25 minutuz bertan izango ditugu gure muffin bereziak. Zigortzen direnean, hortik atera, eta orduan muffin gaziak dastatzeko beta izango dugu. Errezeta erraza, eta aldi berean, originala da honakoa, guztiok harrizko moduko ahogozoa daukan madalena berezia. o

Osagaiak: peperone, emmental gazta, oreganoa, arrautza, esnea, irina, legamia



LAIAK Taberna



BASARTENA URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarrri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak


Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 400 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

<p>URA</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Uda luzatu guran ibili da, baina azkenean hasi da freskatzeko. Ikasteko eguraldi aproposa, ideiak fresko-fresko izango dituzu hemendik eta aipinleria. Aprobetxatu eta ikasi!</p>	<p>OTSOA</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Pasezera urtergo zara eta 50 euroko billetea topatuko duzu lurtean. Pozarren, azkar baino azkarrago makurtuko zara hura hartzeko eta... orain nola altxatu barrero?</p>	<p>ADARRA</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Modako abeslariaren kontzertura joango zara, asko kostata sarrera bat lortu ostean. Pila bat jende egonik tentuz ibili beharko duzu, pantailan ikusi gura ez baduzu behintzat.</p>
<p>AITZURRA</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Lankide barria joango zaizu bulegora eta oso ondo moldatuko zarete, baina adi egon zaitetz, nagusiari koipea emotea gustuko duten horietakoa da-eta.</p>	<p>HOSTOA</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Aspaldiko partez ligatu duzu eta burua galduta zabilta. Baina gogoratu gauko ordu txikitian izan zela eta, beraz, tentuz ibili azkarregi enamoratu gura ez baduzu.</p>	<p>EGUZKIA</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Lelotuta ibiliko zara egunotan: ezagunei jaramonik ez diezu egingo kalean, ezta agurtuta ere. Zer zabilta baina! Zerk itsutu zaitu: eguzkiak ala Zinemaldiko "izarrek"?</p>
<p>GARIA</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Pozarren ibiliko zara datozen asteotan, irribarretsu eta alai, egunero kantari eta dantzari, txoriek lez. Baliatu jarrera positibo hori atzeratuta daukazun lan guztia amaitzeko behingoz.</p>	<p>LASTOA</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Udagoieneko freskurak bultzatuta arropa erostera joango zara, hotzerako txamarririk ez daukazu-eta. Baina, bide batez, erosiko dituzu botak, jertseak, kamisetak, galtzerdiak, e.a.</p>	<p>IRATZEA</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Udagoieneko haizeak txoratuta zabilta ala enamoratuta? Diotenez ez da sasoirik aproposena horretarako, udabarrian loratzen dira-eta lorak. Doazela horiek pikutara, eta zu gozatzera!</p>
<p>META</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Kito! Amaitu da ikastolen jaialdien sasoi. Lastima! Zer egingo duzu maiatzera arteko domeketan? Hasi negurako planak prestatzen, lagunak etxean ezkatuta baino lehen.</p>	<p>HAZIA</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Lagun batzuen ezkontzara joango zara tximeleta legez apainduta, lentejuela eta guzti. Arazoa zera da: euskal ezkontza dela-eta zuk, armairuan ahaztu duzu baserriar jantzia!</p>	<p>NEGUA</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) BEZaren igoera eta gero asko itxaron ostean, ile-apaintzaileari bisita egingo diozu azkenean. Bidaia aprobetxatu eta asko mozteko eskatuko diozu baina, kaleratzean, hau hotza! Udagoiena iritsi da!</p>



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Erdiko letrak falta zaizkie hiru multzo hauetako berbei. Letra horiek berdinak dira multzo bakoitzean. Zuei dagokizue zein diren asmatzea.



gaztetxoak > bilatu eta irabazi

*Nongoa da
Oliver magoa?*

- Durangokoa
- Berangokoa
- Erandiokoa

La Gusana liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

SARIA

- > Aurrekoaren erantzuna: MundUKatuak
- > Irabazlea: **Aretx Bidaurratzaga Aresti***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal barri honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



- > Aurrekoaren erantzuna: ArgIHizkiak
- > Irabazlea: **Begoña Etxebarria Amarika***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



PEDRO SAN JUAN "BORIS"-EK ATERA ETA "ONDARRAK"-EK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

AREETAKO "ONDARRAK" GORBEAN, 1968

"Ondarrak" elkartearen egoitza Areetako Gizarte Etxean (gaurko Andres Isasi Musika Eskolako eraikinean) zegoen; hor aukeratu zen lehenengo Zuzendaritza-Batzordea (1966-05-07): batzordeburua, Jesus Goitia; idazkaria, Juan Fernandez; diruzaina, Jose Ignacio Basagoiti; mendi ordezkaria, Fernando Hiribarnegarai; kirol ordezkaria, Higinio Ortuzar; kultura, Javier Alfonso; gizartea, Juan Manchon; batzordekidea-I, Gonzalez; batzordekidea-II, Juan Luis Gumb.

Gorbean ateratako argazkia duzu hau, Atxulaur (Itxina mendigunean) begia baino apur bat beherago. Areea-Bilbo, Atxuri-Lemoa, Lemoa-Zeanuri, Gorbeara igo, zerbait jan eta jarraian itzulera. Ez zen oso eroso hori dena egun batean egitea. ○

Ezkerretik hasita: Ana Ugarte, Jesus Murueta, Karmen Bretos, Aintzane Saitua, Margari Zubiaurre, Juanjo Kerendez, Fernando Hiribarnegarai, Asun Egaña, Bego Atxa, Manu Murueta, Pedro San Juan "Boris" (ez da agertzen, berak atera zuelako argazkia).

INAXIO PERURENA > harri-jasotzailea

“Ez dut imajinatzen neure burua harriarengandik urrun”

Testua: **Nerea Gujarrubia**



Defini egizu zeure burua berba bitan.
Burugogorra eta saiatua.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Akzio-pelikulak gustatzen zaizkit, baina hortik protagonista izatera...

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?
Harri-jasotzailea. Ezin dut neure burua harriarekin ez lotu.

Zure hautzaroko oroitzapen bat?
Bost urterekin hasi nintzen harria jasotzen, oroitzapen mordoa dabil bueltaka.

Eta aitor dezakezun bizio bat?
120 km-ko abiaduratik askotan pasatzea.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?
Janari asko; gosea pasatzea, malo!

Zein da zure ametsetako bat?
Lesioak gainditu, eta egiten dudana gozatzea.

Oihukatu duzun azken aldia?
Uda osoan hernia diskal batekin egon naiz plazetatik kanpo. Baina udazkenean egin ditudan entrenamendu on gehienetan oihukatu dut.

Parrandarik politenak non?
Leitzan.

Gogoko esaldirik edo lelorik baduzu?
Behin baino ez gara bizi.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?
Luzaketa bat egiten kasik ligamentu bat puskatu dut.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?
Inaxio Perurenak lesioa gainditu, eta prest dagoela erronka baterako. ○

LABURREAN—Bost urterekin harria altxatu, eta ordutik ez du atsedetik hartu; aitaren urratsak jarraitu ditu Inaxio Perurenak (Leitza, 1984), eta bere bidea egin du. Goiko bere erantzunak irakurri gero, erraz antzeman dezakegu pasioa sentitzen duela bere lana zein bizimoduagatik. Gaztetxo zela urratu zituen lehenengo markak; 16 urterekin 200 kiloko harria altxatu zuen; hamazortzigaz, ordea, 250 kiloko lepoan hartzea lortu zuen. Hori gutxi balitz, bi eskuak egin duen markarik onena 295 kiloko harria jasotzea izan da, eta esku batez, ordea, 130 kiloko harria. Inaxiok aitortu legez, uda gogorra bizi izan du plazetatik urrun, lesioak jota: hernia diskalak minduta ibili da; halere, ez du etsi, eta aurrerantzean ere, ziur aski, herriz herri harriak bere egiten ikusiko dugu, erronka barriei aurre eginez.

KANPORAKETAK



SOPELA
Urriaren 28an, domeka
17:30ean
Frontoian

**EKAITZ LARRAZABAL
IGOR ELORTZA
GARIKOITZ SARRIUGARTE
GORKA LAZKANO
JOSEBA ARTZA
NEREA IBARZABAL**



www.bizkaikotxapelketa.biz



Informazio guztia:



Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika! ezazu!

Gidabaimena
euskaraz
ateratzeak
saria dakar!

100 litroko erregai-txartela.
Asteburuko egonaldia landa-etxe batean.
iPad 3 bidaia eta ibilbideen
aplikazioak sartuta.

Estreina ezazu atzeko
jesarlekua behar duzun guztiarekin!



Galdetu zure autoeskolan edo euskara zerbitzuan!

Erandio: Altzaga, Arias, Astrabudua, Erandio eta Gaztedi. **Getxo:** Algorta, Amezti, Arias, Getxo, San Inazio eta Uribe Kosta.

Plentzia: Uribe Kosta. **Sopela:** Kaiku, Sopelana eta Uribe Kosta. **Urduliz:** Kaiku.

URIBEKOSTAKO
MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS
URIBIEN ERREKIBITZE MANDAMENDUAK
SOPELA, ERANDIO, GAZTEDE, PLENTZIA, ALKARBIDE, ERANDIO

Euskara
zerbitzua
ERANDIO
ELIZATEKO UDALA



Sopelana Udala



Getxo
bizi ezazu



EUSKARA BIZI



MANCOMUNIDAD DE LA AUDIENCIA DE ERANDIO
BIZI ERANDIO



AlkARBIDE
Birikako Euskara Zerbitzua Bilgortza



Bizkaiko Foru Alkandua
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



EUDEL
BURGALDIA UDALEN ELKARITZA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS